

Herririk Herri

Aranzadi Zientzia Elkarteak Mendatako indusketan aurkitutako hezurak Pedro Uriguen gudariarenak izan daitezke > 2



JAIK!

**ELORRIO
IZURTZA**

Hik jai eta nik lan

Uda atseden hartzeko erabiltzen du jende gehienak: atzerrira bidaiak, hondartza, mendia... Baina badago uda lanerako hartzen duenik ere, oporrak beste baterako utzita. Udako ezohiko testigantzak dira. > 3

Autzaganeko tunela egiteko enpresekin zuen kontratua eten du Aldundiak

Autzaganeko tunela egiteko ardura duen enpresa elkar-teak dioenez, ezin dio aurre egin obretan sortu den gain-kostuari, eta gaur egun lanak geldituta daude. Aldundiak adierazi duenez, kontratua argi zehazten da gainkostuak enpresa elkar-tearen kargu geratuko zirela. Alde bien arteko batzarretan ez dute egoera bideratu, eta Aldundiak kontratua baliogabetzea erabaki du. Irailean beste proiektu bat onartu gura dute. EH Bilduk obretan ingurumenari lotutako arazo "larriak" egon direla salatu du. > 2



hitz #gomendioak

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda



**HELDUENTZAT
ESPEDIZIOA**
Juanra Madariaga
(2015)



**UME ETA GAZTEENTZAT
ILUNEAN ARGI**
Liebana Goñi
Yáñez (2015)



**MUSIKA
MEUS QUINTAIS**
Maria Bethânia (2014)

A. Urreta podólogo

Binara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea,
10, behe - 48200
DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

R.P.S. 21406

Durango > 6

Isuna jarri diote udalari Enplegu Planeko kontratazioengatik

Izurtza > 4

Hainbat karramarro hilda agertu dira Mañaria errekan

Durangaldea > 4

Kontainer marroien erabilera herri gehiagotara zabaldu dute

Elorrio > 9

Alkatearen lanaldi murrizketak eztabaida sortu du udalbatzarrean

Herririk herri

Autzaganeko tuneleko lanak geldituta, proiektu berriaren zain

Tunela egiteko enprekin zuen kontratua baliogabetu du Aldundiak; EH Bilduk ingurumenari lotutako arazoak ikusten ditu erabakiaren atzean



Zornotza-Muxika tartean, BI-635 errepideko lanen barruan egiten dabilza Autzaganeko tunela.

ZORNOTZA J. Derteano
Autzaganeko tuneleko lanak geldi daude hilabete baino gehiagoan. Aldundiaren esanetan, obra horiek egiteko ardura duen enpresa elkarteak –zazpi enpresez osatuta–, jakinarazie ezin diela aurre egin sortu diren galkostuei, eta obrak geldirik daude. Baina enpresek hasieratik zekiten galkosturik izatekotan eurei zegokiela horri aurre egitea Aldundiak prentsa ohar batean adierazi dutenez: “Kontratuaren baldintza-agiariak zehaztasunez jasotzen du baldintza geotekniko, geologiko zein hidrologikoek eragin ditzaizketen balizko galkostuak obraren esleipendunen kargu izango direla”. Alde bien arteko batzarretan ezin izan dute egoera bideratu, eta, horregatik, Aldundiak abian jarri du kontratua baliogabetzeko espedientea. Aldundiak ez du zehaztu galkostu horiek zerk eragin dituen, baina, iragarri duenez,

Lurralde eta Ekonomia Garapenerako diputatu Imanol Pradalesek Bizkaiko juntetxean gai honen gaineko azalpenak emango ditu.

Bizkaiko Foru Aldundiak iragarri du irailen tuneleko lanak amaitzeko proiektu bat onartzea aurreikusten duela

EH Bilduren esanetan, “eskualdean nabarmena da akuiferoak sikatu eta iturriak desagertu direla; gertakari larria da hori”

EH Bilduk ingurumenari lotutako arazoak direla uste du: “Uste dugu, iaz, Oka ibaian jazotako isurketatik gertatu ziren ingurumen arazo larriak argi-

taratu ez diren obraren akatsetan duela bere jatorria”. Oka ibaira egindako isurketen gaineko hainbat salaketa jaso ostean, Ura agentzia tunela egiteko ardura duten enprekin batzartu zen iaz, arazoa zuzentzeko neurriak zehazteko. EH Bilduren esanetan, “eskualdean nabarmena da akuiferoak sikatu eta iturriak desagertu direla; gertakari hori larria eta atzeraezina da, eta susmoa daukagu ez duela inork bere gain hartuko”. Bide horretan, Pradalesen azalpenak ez zaizkiola nahikoa iruditzen, eta enpresa elkartearen ardura duten batzorderatza exijitu du, beharrezko azalpenak eman ditzaten.

Bitartean, Autzaganeko tuneleko lanak geldituta daude. Aldundiaren esanetan, irailen tuneleko lanak amaitzeko proiektu berri bat onartzea aurreikusten dute. Ondoren, lanak berriro esleitzeko prozedura martxan jarriko lukete.

Mendatan aurkitutako hezurak Pedro Uriguen gudariarenak izan daitezke

ZORNOTZA J.D.

Martitzenean, 36ko gerran hildako baten hezurak aurkitu zituzten Mendatako Marmiz auzoan egiten dabilzan indusketa eta prospekzioetan. Pedro Uriguen zornotzarrarenak izan daitezkeela uste dute. Atzo eguerdian, hezurak lurpetik atera zituzten, Uriguenen familia bertan zela. Marisa Barrena Uriguenen senitartekoak dioenez, ahozko testigantza ugari

daude hezur horiek Uriguenenak direla baieztatzen dutenak. Barrena bera atzoko indusketatik izan zen. Hala ere, Euskal Herriko Unibertsitatean hezurren DNA aztertuko dute, eta hiru hilabetearen emaitzak jakitea aurreikusten dute.

Boroa auzoko Biesko base-rrian jaiotako Pedro Uriguenek 25 urte zituen hil zutenean. Gudari zornotzarrak Otxandioko batailoian jardun zuen.



Aranzadi elkarteak atzo Mendatako Marmiz auzoan egin zituen indusketak.

Bertso, koplak eta soinu afaria, bihar, Autzaganen

ZORNOTZA J.D./A.U.

Zapatuan, 20:30ean, txupinazoga gaz hasiko dituzte Autzaganeko jaiak. Gero, afaritan, bertsoan egingo dute Andoni Egañak eta Igor Elortzak, eta Xabier Amurizak bertsoak, koplak eta kontuak ekarriko ditu mahaiaren bueltara. Zornotzako trikitilariak giroa dute afaria. Autzaganen jatetxean erosi daitezke txartelak.

Umerez betetako afariaren ostean, domekarako egun osoko egitaraua antolatu dute. 09:00etan, ibilaldia egingo dute Bizkargira, Zornotzako Elikagaien Bankuaz arduratzen den ZEA-ASA elkartearen alde. Par-

te hartzearen truke 2 euro ordaindu beharko dira, elkarte horretara bideratzeko, eta umeek ez dute ordaindu beharko.

Eguerdian, igel txapelketa egingo dute Autzaganen, eta, bitartean, parrilada egongo da, eta baita LoreInka txalapartariak, albokaria, adarlarria eta Zornotzako Udazken txistulari taldea ere.

Arratsaldean, briska txapelketa bizkorra egingo dute 17:00etatik aurrera, eta, 18:00etan, umeentzako jolasak eta herri kirolak hasiko dituzte. Ondoren, txokolatadagaz amaituko dituzte aurtengo Autzaganeko jaiak.

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko abuztuaren 28a,
13. urtea - 599. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia,
Itxaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Laguntzaileak:



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutakoa



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Udan 'herria altxatu' dutenak, oporrak beste baterako utzita

Zenbaitzuek udan lan egitea erabakitzen dute, gehiengoa oporretan dagoen bitartean; langabeziak, proiektu berriek edota ofizioak bultzatu dituzte horretara

DURANGALDEA M.O.

Udari aste batzuk geratzen zaizkio oraindik, baina oporrak hartzeko sasoi beteak pasa dira dagoeneko. Hondartza, mendia, atzerriko herrialdeak... Ikasturteko egunerokotasunagaz apurtzeko aukerarik ez da falta. Baina, askok atsedean hartu duten bitartean, beste batzuek *herria altxatu* behar izan dute. "Hik lan, eta nik jai!", abestiak zioen moduan. Gainera, lan

egin duten hainbatek oporretan egondako jendeak ondo pasatu ahal izateko egin dute behar. Zerbitzariak, izozki saltzaileak eta musikariak dira horren adibide. Horiek guztiek beste baterako utzi dituzte oporrak.

Zerk bultzatu ditu udan beharra egitera? Eneritz Agirrerren antzera lan barik egon direnentzat, arnasa apur bat hartzeko aukera da udan lan egitea. Aintzane Uria, Onintze Murga

eta Txus Ruiz de Erentxunek, ostera, udan edukitzen dute lanik gehien, ofizioak horrela eskatzen dielako. Bestalde, Aitziber Areitoren antzera, gazte batzuek bidaia luzeak egiteko erabakitzen dute udan lan egitea. Eta zelan ez, badaude ofizio batzuk urteko 365 egunetan beharrezko direnak; Monika Bilbao ambulatorioan geratu da, oporraldian ere ez gara-eta gaitasunetatik libratzen.



Onintze Murga

Lopez izozki dendakoa

Duela lau urte zabaldu zuten denda Onintze Murgak (Lekeitio, Bizkaia, 39 urte) eta senarrak.

Izozkiak saltzen zabilta Durangon. Zer moduz? Izozki asko jaten da?

Durangon zaila da noiz salduko den igartzea. Baina ez badago zeru urdinik, ez da izozkirik jaten. Eta, antza, aterkina eta izozkia ez dira bateragarriak! Abuztuan ez dago ezta arimarik ere. Kanpotik etorritakoak edukitzen ditugu; aurten frantses

ugari etorri da. Sasoi onenak udaberria eta irailetik sanfaustoak pasa artekoa izaten dira.

Udan oporrak hartzen dituzten inbidiarik izaten al duzu?

Ez, udan lan egitera ohituta nago. Gurea udako beharra da, eta aspaldian ez dakit zer den udan oporrak hartzea. Urtarrilean hartzen ditugu guk oporrak.



Monika Bilbao

Medikua lurretako ambulatorioan

Herria eta herritarrak zaintzen geratu da Monika Bilbao (Ugao, Bizkaia, 49 urte).

Zergatik zabilta lanean?

Nik gura dudalako nabil udan lanean. Oporrak hartzeko nahiago izaten dut iraila, eta, aukera egin ahal dudanez, horrela erabakitzen dut. Irailean errazago topatzen da lekua holetetan, eta merkeago, gainera.

Zelako esperientzia da? Lan asko ez duzue edukiko...

Abuztua hilabete oso lasaia izaten da. Azkeneko astean nabaritzen dugu gehiago, baina orokorrean jende gutxiago egoten da. Hori bai, langile gutxiago egoten gara.

Ez al duzu inbidiarik edukitzen?

Bai. Baina, beno, haiek etortzen direnean ni joaten naiz!



Eneritz Agirre

Atxondoko igerilekuetako behargina

Uda igerilekuan pasatzen dabil Eneritz Agirre (Atxondo, 31 urte), baina lanean.

Zein da zure lana?

Igerilekuko txarteldegian egoten naiz, jendeari sarrera ko-bratzen. Eguna amaitzean, igerilekuak eta duxak garbitzen ditut, hurrengo egunerako dena prest egoteko.

Zergatik animatu zara udan lan egitera?

Denboraldi bat lan barik egon

naiz. Gainera, igerilekua gustatzen zait, eta, jendea pozik ibiltzen denez, atsegina da. Uda itzela dabil egiten, eta jende asko etortzen da. Jendea jator eta errespetuz portatzen da gugaz.

Inbidiarik?

Ez. Egun erdiz egiten dut lan. Beraz, gainerako denboran disfrutatu ahal dut.



Aintzane Uria

Luhartz taldeko abeslaria

Udan, herririk herri ibiltzen da Aintzane Uria (Durango, 36 urte) Luhartz taldeagaz.

Zenbat erromeria egiten dituzue udan?

50 erromeriatik gora egin ditugu, baina oraindik gure denboraldia azarora arte luzatuko da. Urte barruan ere egiten dugu lan, eta tarteak aprobetxatzen ditugu oporretarako.

Aurten, gainera, Boiseko eskualde jaialdian egon zarete.

Guretzat sorpresa handia izan zen, 65 talde aurkeztu ginelako. Esperientzia aberasgarria izan da, pertsonalki eta profesionalki. Diasporakoak gu eta gure kanten zain zeuden, eta hemengo 75 zale ere gugaz etorri ziren. Eskerrak guztiei! Zoragarria izan da!

Uda ugari lanean?

20 urteagaz hasi nintzen. Hasieran etortzen ziren neskak orain seme-alabekin etortzen dira. Euren bizitzako atal batean sartzen zara, eta horrek asko betetzen nau.



Txus Ruiz de Erentxun

Abentura kiroletako gidaria

Abentura irteeretan aitzindaria izan zen Txus Ruiz de Erentxun (Durango, 44 urte).

Ur Nomade zerbitzuan zabilta. Zelakoa da zure uda?

Udaberrian, Ordesan (Pirinioak) egoten gara, erreka egiten. Gero, Pirinioa kayakekin zeharkatzen dugu San Fermin bueltan. Azken eguna Iruñean ematen

dugu. Ostean, Alpeetara joaten gara, uretako eta mendiko ekintzak nahasteko. Batzuetan Laidan ere egoten naiz, eta udako denboraldia Huescan amaitzen dut. Udazkenean, Nepalera joaten naiz, eta, Aste Santuan, Marokora. Oporrak neguan hartzen ditut.

Batzuek usteko dute zurea ez dela lana...

Lanaren eta hobbyaren arteko aldea igarri behar duzu, beste txarto zabilta. Zerbait pasatzen bada, hor agertu behar da zure esperientzia. Lana polita dela? Bai. Baina lana izateaz gainera, ardura ere bada.



Aitziber Areitio

Zerbitzari dabil Lekeitioan

Hego Amerikara joateko, dirua irabazten dabil Aitziber Areitio (Mañaria, 23 urte).

Zer moduz zabilta zerbitzari?

Abuztuan jende piloia egon da. Eguraldi ona eginez gero, topera ibiltzen gara lanean, herri turistikoak da-eta. Irailean, Hego Amerikara bidaiatuko dut ikasturte osorako, eta den-

bora gutxian ahalik eta diru gehien lortu gura nuen. Lan asko da, baina dirua ere bai. Hiru aste geratzen zaizkit.

Lekeitioan egon zara bizitzen, gainera.

Bai, eta etxetik kanpo egotea ondo etorri zait; deskonektatzeko balio izan dit, eta gauza asko ikasi dut.

Jai ugari galduko zenituen...

Batzuetan libratu ahal izan naiz, baina asteburuetan ez. Hala ere, parranda bat gorabehera, ez du ardura. Kanpora noa urtebetez oporretarako, eta orduan disfrutatuko dut.

momotx
t a b e r n a



Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 946 811 006

GAER  **DESINFEKZIOAK**

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Kontainer marroiaren erabilera herri gehiagotara zabalduko dute

Urrian helduko da kontainerra Abadiñora, Atxondora, Elorriora eta Zaldibarrera



37 kontainer marroi ipiniko ditu Amankomunazgoak.

DURANGALDEA A. Ugalde Iurretan eta Abadiñoko Traña-Matienan lehen proba pilotua egin eta gero, zabor organiko bereizteko aukera zabaldu egingo dute laster Durangaldean. Abadiñoko auzo nagusietan, Atxondon, Elorrion eta Zaldibarren, guztira, 37 edukiontzi marroi ipiniko ditu Amankomunazgoak. Irailean hasiko dira sistemaren informazioa zabaltzen, eta zerbitzua erabili gura dutenei materiala banatzen. Izan ere, parte hartzea aukerakoa izango da. Kanpainarako, informazio puntuak ipiniko dituzte kalean, eta Interneten ere blog bat elikatuko dute informazioa argitaratzeko: www.organikoaturangaldean.com. Birziklapen dinamika urrian

Informazio puntuak ipiniko dituzte kalean, eta Interneten ere blog bat elikatuko dute

martxan egotea aurreikusi du Amankomunazgoak.

600 giltza

Hondakin organiko birziklatu gura duten herritarrei hainbat erraztasun emango diete doan: etxerako edukiontzi marroia, poltsa konpostagarri sorta, kaleko edukiontzietarako giltza eta informazioa. Momentuz, 600 giltza erosiko ditu eskualdeko administrazioak, lehenengo erabiltzaile kopuruari aurre egiteko.

Konpostajea ere bai

Kaleko edukiontziez gainera, lorategia edo lursaila duten herritarrentzat etxeko konpostajearen ekimena sustatuko du Amankomunazgoak. Informazio batzarrak eta prestakuntza tailerrak antolatuko dituzte landa eremuetan, etxean kalitatezko konpostajea zelan egin ikasteko.

Gero, partaideek euren lorategi eta ortuetan erabili ahalko dute etxean bertan sortutako ongarri naturala.

Begirale ikastaroa emango dute euskaraz

Amankomunazgoak antolatu duen begirale ikastaroan irailaren 18ra arte eman ahalko da izena

DURANGALDEA M. Onandia Durangaldeko Amankomunazgoak begirale ikastaroa antolatu du gazteentzat, umeei bideratutako euskarazko aisialdi ekintzetarako prestatzeko. Amankomunazgoko ardura-dunen ustez, aisialdia tresna egokia da euskararen erabilera sustatzeko, baina, horretarako, beharrezkoa da prestatzea: "Aisialdiko jardueretan euskararen erabilera bultzatzeko, garrantzitsua da begiraleek prestakuntza egokia izatea". Ikastaroan parte hartu gura dutenek irailaren 1etik 18ra bitartean eman ahalko dute izena.

Begirale ikastaroa urrian hasiko da, eta maiatzera arte iraungo du. Hilean asteburu

bitan elkartuko dira Behargin-tzaren egoitzan, eta Urtxintxa eskolaren eskutik jasoko dute ikasgaia. Alde teorikoa eta praktikoa garatuko dituzte.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren titulu ofiziala jasoko dute ikastaroa amaitzen duten gazteek. Parte hartzeko, beharrezkoa izango da 2015. urtea amaitu orduko 18 urte eginda edukitzea.

Matrikula, doan

Amankomunazgoko euskara zerbitzua garatzen duten herritarrei -Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar- gazteek doan izango dute matrikula.

Hainbat karramarro hilda agertu dira Mañaria ibaian

Joan zen barikuan aurkitu zituzten, Lejarza eta Elizalde auzoen arteko presa batean

IZURTZA Joseba Derteano Joan zen barikuan hainbat ibai-karramarro hilda agertu ziren Mañaria errekan, Lejarza eta Elizalde auzoen artean dagoen presa baten inguruan. Herritar batek abisua emanda, besteak beste, Uraren Euskal Agentziako eta Bizkaiko Aldundiko arduradunak bertaratu ziren egoera aztertzeko.

Ura agentziako iturriek argitu dutenez, bertaratu zirenean ez zuten ezelango isuririk aurkitu, eta urak kolore normala zuen. Beraz, agentziako arduradunek ez zuten ur laginik hartu aztertzeko. Bizkaiko Aldundiko Ingurumen Saila izango da ikerketagaz aurrera jarraituko duena, baina oraindik ez dute

gertatutakoaren arrazoirik aurkitu, eta ezin dute baieztatu isuririk egon den ala ez.

Errekako uraren gainean hiru hilerik behin jasotzen duten txostenaren zain dago

Aldundiak ez du ezelango isuriren zantzurik aurkitu, baina ikerketarekin jarraituko du

Izurtzako Udala, gertatukoari buruz gehiago jakiteko. Edoze-lan ere, Lorea Muñoz alkateak errekak garbi mantentzeko eta ingurumena errespetatzeko deia egin du.

Pilotalekua alokatzeko epea hasiko da irailaren 1ean

MAÑARIA M.O.

Mañariko pilotalekua alokatu gura dutenek ikasturte honetan ere edukiko dute aukera. Irailaren 1ean hasiko du udalak izena emateko epea, eta 7ra arte inskribatu ahalko da.

Pilota eskolako ordutegiaz aparte, hainbat orduz libre egoten da pilotalekua, eta tarte horietan alokatzea posible izaten da. Pilotazale askok ematen du izena, esku pilotan, palan edo frontenisean egiteko. Astean ordu bat aukeratu, eta ikasturte osorako erreserbatuta edukitzen dute.

Udalak 10 euroko tasa ezartzen die erabiltzaileei orduko, eta, horrela, kantxa zein dutxak erabiltzeko aukera edukitzen dute.

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
posta elektronikoa: jrueda@segurosbilbao.com

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxe: 946 816 403

katerin ardoak
inaki uribe

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

OSASUN GIDA

FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13

PSIKOLOGIA

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11

PEDAGOGIA

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotritzitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63

PODOLOGIA

**PODOLOGIA
KLINIKA**

**GOIATZ MURUA
PODOLOGOIA**

**AINHOA ELORZA
PODOLOGOIA**

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

RPS: 148/13

ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOIA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09

OPTIKA

keinu optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoportmetriazentroa.com

RPS: 162/13

ODONTOLOGIA

clínica dental hortz klinika

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**
ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOIA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13

 **Profesional onenak zure zerbitzura!**

6.200 euroko isuna ipini diote udalari, Enplegu Planeko kontratazioarengatik

Udalak hamabi behargin hartu zituen, baina sektoreko hitzarmena ezarri zien

DURANGO Markel Onaindia 6.200 euroko isuna ipini dio Eusko Jaurlaritzak Durangoko Udalari, Enplegu Planeko kontratazioan arau hauste larria egiteagatik. ELA sindikatuak udalaren kontrako salaketa ipini zuen “kontratazio ilegala” egin zuelakoan, eta, udalak alegazioak egin arren, Lan Ikuskaritzak sindikatuari eman dio arrazoia. ELAk eta EH Bilduk dirua aurrezteko asmoa ikusi zuten udalaren jokabidean; hamabi behargin kontratatu zituen, baina udal hitzarmena barik sektorekoa ezarri zuen.

Eusko Jaurlaritzak sustatuta, Lanbidek 162.000 euro eman zizkion udalari 2014an, Enplegu Plana finantzatzeko. Durangoko administrazioak hamabi behargin hartu zituen sei hi-

lean, brigada lanak egiteko, baina kontratazioa Sartu-Zabaltzen erakundearen –gizarteratzea sustatzen duen erakundea– bidez egin zuen. ELAren ustez, erakunde hori ez da aldi bate-

ELAk eta EH Bilduk dirua aurrezteko asmoa ikusi zuten udalaren jokabidean

Lanbidek 162.000 euro eman zizkion udalari 2014an, Enplegu Plana finantzatzeko

rako lan enpresa bat, eta udalak ezin du formula hori erabili.

3.000 euro gutxiago

Gainera, pertsona horiei ez zieten udaleko lan hitzarmena ezarri, baizik eta sektorekoa. Horrela, brigadako langileek baino baldintza eta soldata txarragoak eduki zituzten. Batez beste, bakoitzak 3.000 euro gutxiago jaso zituen, ELAk kritikatu zuenez. Brigadan une horretan zazpi behargin bajaran zeudela ohartarazi zuen sindikatuak; langileak beharrezko ziren, beraz. Ondorioz, udalaren jardueran dirua aurrezteko asmoa ikusi zuten, ELAk lehenik, eta EH Bilduk ondoren.

Enplegu Plana PSE-EEren eta EAJren udal taldeek bultzatu zuten.



ELAk 2014ko urrian egin zuen udalaren kontrako salaketa.

Emarri taldea eta zaldia nor baino nor gehiago

Desafioa antolatu dute domekarako, Zengotitan

MALLABIA Jone Guenetxea Zapatuan hasiko dituzte Mallabiko Zengotita auzoko jaiak, Txopoa jasota, 20:00etan. Ondoren, auzokoentzako afari-merienda prestatuko dute, jaiari behar den bezala ekiteko.

Domekan, berriz, mezaren eta dantzarien ostean, desafio berezia ikusi ahal izango dute gerturatzen direnek. Aterpe Eraikuntza enpresaren zaldiak Oiartzun-Astigarragako Emarri Emakume Proba Taldearen indarra neurtuko du. Izan ere, hogeitun minutuko proban, zaldiak emakumeen bikoitza egitea da erronka. Arratsaldean, ostera, bolo txapelketan elkartuko dira. Era berean, umeen jolasak eta patata tortilla txapelketa izango dituzte gozagarri.

Astlehenean, 12:00etan meza eman eta gero, Mallabiko Gazte Alai dantza taldeak era-

Zapatuan hasiko dituzte Mallabiko Zengotita auzoko jaiak, Txopoa jasota

Domeka arratsaldean umeen jolasak eta patata tortilla txapelketa izango dituzte gozagarri

kustaldia eskainiko du. Bolo txapelketa eta asto probak ere izango dituzte.

Lopategi izan da idi probetan garaile

MALLABIA J.G.

Mallabiko XXVI. Idi Proba Txapelketekin amaitu zituzten herriko Andra Mari jaiak joan zen asteburuan. Barikuan, zapatuan, domekan eta astlehenean jokatuak probek sailkapena erabakita utzi zuten. 35 untze eta 4,39 metrogaz Lopategi izan da lehenengo saria etxera eramane duena aurten. 1.700 euro, manta eta garaikurra eskuratu ditu.

Biritxinaga, berriz, bigarren geratu da, 32 untze eta erdi eta 5,40 metrogaz. Hartara, 1.450 euro eta garaikurra jaso ditu Biritxinagaren idi pareak. Goieta Taberna, Goirigolzarri, Renteria, Alegria, Luis Uriagereka, Erlete, Zuriñe Uriagereka, Aburuza, Laski eta Retegi dira hurrengo saritutakoak sailkapenean.

Sei herritar daude bizileku publikoetarako zerrendan

Interesa dutenekin zerrenda eguneratu dute; laster zerrendako ordena zehazteko zozketa egingo dute

ATXONDO Joseba Derteano Atxondoko Udalak lau etxebizitza publiko ditu Arrazolan. Orain, denetan bizi da jendea, baina udalak etxebizitza publiko horietara joateko interesa duten herritarrekin zerrenda bat du, eta zerrenda hori berri du. Uztailean hasi zen izen-emateko epea, eta, guztira, sei atxondarrek erakutsi dute interesa bizileku publiko horietarako.

Libre geratzen joaten diren heinean, etxebizitza herritar horien artean banatuko dituzte. Etxebizitza zein ordenatan eman erabakitzeko, zozketa publikoa egingo dute iraileko lehen hamabostaldian. Zozketa hori udaletxean egingo dute,

eta aurrerantzean ordena hori erabiliko dute etxebizitza banatzerako orduan. Zozketan lehenengo tokia egokitzen zaionak ez du askorik itxaron

Zerrendako aurrenekoak ez du askorik itxaron behar; irailean libre geratuko da bizileku bat

beharko. Dabid Cobos alkateak jakinarazi duenez, irailean bertan etxebizitza bat libre geratuko da. Eta beste etxebizitza bat ere laster geratuko dela libre adierazi du; beharbada, urrian bertan.



45 urte baino gehiago euskal basoen zerbitzura



Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!





RENAULT
Passion for life

Bigarren eskuko ibilgailuek espazio zabala behar zuten, eta eman egin diegu.

GAURSA OCASIÓN

ESPAZIO ZABALA

BIGARREN ESKUKO IBILGAILUAK IURRETAN

Kalitate handia eskaintzen dugulako (ehun puntutan baino gehiagotan errebisatutako autoak); 24 hilabeterainoko bermea ematen dugulako; stock handia eta marka guztietako ibilgailu-aukera zabala dugulako; gure prezioak azken prezioak direlako; finantziario-baldintza ezin hobekak eskaintzen ditugulako... Eta beste hainbat arrazoi tarteko, bigarren eskuko ibilgailu baten bila bazabiltza, zatoz **IURRETAKO GAURSA ZENTRO HANDIRA.**



RENAULT
OCASIÓN

ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKO AUTO BATENGATIK

GAURSA

Arriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA www.gaursa.com

Carmen Santosek lortu ditu 'Iurretan erosi' kanpainako azken 100 euroak

IURRETA Aitziber Basauri Herrian bertan erostera bultzatu gura duen *Iurretan erosi* kanpainako azken zozketa Carmen Santosek irabazi du. Uztailean izan zen hori, eta Adatz ile apaindegian erosketak egin eta gero lortu ditu Santosek 100 euro erosketak txarteletan.

Ekainean ipini zuten martxan ekimena Dendak Bai merkatari elkarteak eta Iurretako Udalak. Herriko saltokiei bultzada ematea du helburu, eta Dendak Bai elkarteak arduradunak "oso pozik" daude orain arte izandako harreragaz.

Gaur egun 23 saltokik parte hartzen dute kanpaina horretan. Bezeroek erosketak egiten dutenean euren izen-abizenak eta telefonoa jarri behar dituzte erosketak txartelean, eta hori kanpainarako jarritako kutxetan sartu. Kanpainara atxikitutako komertzioetan daude jarrita kutxa horiek. Parte-hartzaileek hilebetero egingo den zozketa parte hartuko dute.

Bihar, Errogatiba Eguneko ohiturak elkartuko ditu abadiñarrak Urkiolan

Andra Mari ermitatik aterako da, 09:00etan, Errogatiba Eguneko prozesioa



Dantzarien emanaldia izango da, Urkiolan, bihar.

ABADIÑO Itsaso Esteban Bihar, goizean goizetik ospatuko dute Errogatiba Eguna abadiñarrak. Ohiturari jarraituz, Andra Mari ermitatik aterako dira, 09:00etan, Urkiolarainoko bidea oinez egingo duten herritarrek, eta egun-pasa egingo dute santutegian. Mendiola auzotik Atxarteraino joango dira ibiltariak, eta, 10:45ean, Txakurzulon hamarretakoa izango dute zain.

Uztailean izena eman zuten jubilatutako abadiñarrek, berriz, 10:30ean hartuko dute autobusa Urkiolara joateko.

Urtero bezala, egitaraua atondu du Abadiñoko Udalak, Urkiolako Errogatiba Egunearako. Besteak beste, Abadiñoko jubilatuentzako bazkaria eta bazkalosteko dantzaldia, eta Talde Batua dantza taldekoen emanaldia izango dira Urkiolan.

Eguna Urkiolako santutegi inguruan pasatu eta gero, iluntzean herrigunera bueltatu, eta afaritarako elkartuko dira herritarrek Gaztañodi parkean. Herriko DJ baten emanaldiagaz amaituko dute eguna.

Abadiñarrek ez ezik, mañariarrek ere badute Errogatiba Egunean Urkiolara joateko ohitura. Gaur ospatu dute mañariarrek Errogatiba Eguna.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU
EH Bildu



Printzipioak

Hona hemen gure printzipioak; baina ez bazaizkizu gustatzen, beste hauek ere baditugu...

Hasi da Durangoko Udalean legegaldia, eta hartu dira lehen erabakiak, besteak beste, alkatearen eta zinegotzi liberatuen soldata finkatzea: alkatearentzat, 73.800 euro urteko; zinegotzientzat, 56.000. EH Bilduk aurka bozkatu du. Beste alternatiba bat aurkeztu genuen: zinegotzi kopurua kontuan izatea liberatu kopurua zehazteko, eta udal administrari baten soldata kobratzea.

PNVk, PSEk eta PPk bat egin zuten, eta gorago agertzen diren kopuruak mantendu zituzten. Erabaki hori hartzerako orduan Eudelek ezarritako irizpidea zela argudiatu zuten.

Bestalde, aste honetan jakin izan dugu udalak isun bat jaso duela, hain zuzen ere, azken enplegu planean kontratatutako langileei hitzarmen kolektiboa ez aplikatzeagatik. Bada, hitzarmen kolektibo hori Eudelen adostutakoa da, eta udalak onartutakoa. Arau hauste oso larritzat hartu du lan ikuskaritzak hirugarren enpresa bat bitartekari lanetan erabiltzea, adostutako hitzarmena ez aplikatzeko. Hala, trikimailuaren ondorioz, durangar guztiok ordaindu beharko dugu 6.200 euroko isuna.

Ondorioztatu dezakegu PNVk eta PSEk euren soldatak ezartzerako orduan Eudelen irizpideak jarraitzen dituztela, baina langileen soldatak ezartzerako orduan ez daukate arazorik Eudelek araututakoa ez betetzeko. Hori bai, langileei soldata askoz murriztagoak ezartzea da helburua.

Printzipio benetan marxistak, baina Grouchoren eskola-koak.

Berriztarrak badabiltza herri ortuetan beharrean

BERRIZ Amaia Ugalde Apurka-apurka itxura polita hartzen dabilta Berrizko herri ortuak. Uztailean amaieran egin zuten lursailen banaketa, eta herritar batzuek dagoeneko atondu dute euren ortu eremua. Nekazaritza ekologikoa landuko dute kanposantu alboko baratzeetan, eta begirale baten laguntza izango dute mota horretako nekazaritzan zelan lan egin ikasteko.

Momentuz, 25 lursail banatu dituzte, eta horietako hiru gordeta egon dira: bat eskolarentzat, beste bat institutuarentzat

eta hirugarrena elbarrituentzat. Lursailak 60 metro karratu dituzte, eta udalak eremu handiagoa eskuratu zuenez, gero lursail gehiago banatzeko aukera egongo dela azaldu du Orland Isoird alkateak: "57 lursailentzako eremua daukagu, eta aurrerago aztertuko dugu beste fase bat egiteko aukera".

Euri-urekin lanean

Herri ortuetan, herriko ura erabili beharrean euri-urak erabiliko dituzte. Horretarako, euria egiten duenean ura batzeko biltegiak dituzte baratzeetan.

Udal armarri berria finkatu dute, ikerketa egin ostean

Udalbatzak uztailean onartu zuen aldaketa egitea

ZALDIBAR I.E.

Uztaileko udalbatzarrean onartu zuten udal armarrria aldaketa. Aurrerantzean, hiru otso-oren irudia daukan eta *Zaldua* idatzita dakarren armarrria erabiliko du Zaldibarko Udalak. Udalak duela bi urte enkargatu zuen ikerketa, eta Gerediaga Elkartearen eta Balendin Lasuen ikertzailearen irizpideak izan dituzte aldaketa egiteko oinarri.

Eitzagako errotako armarrria da Zaldibarko Udalaren armarrri berriaren agertzen den

irudia; ikerketan parte hartu duten heraldikan adituek uste dutenez, erreferentzialtasun historiko handia du.



Hiru otso agertzen dira armarrrian.

Durangaldeko Baserritarren Elkarte



Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

Chimeneas
Cerámicas **MACOBER**
Sanitario

MACOBER
Tronperri kalea, 1 DURANGO
Zeramika eta gresa

Amatasuna eta lana, Elorrioko udal eztabaidaren erdian

Udal jardunerako, Buruaga eta Dominguez liberatu dira



Buruagak eta Mujikak eztabaida eduki zuten uztailleko osoko bilkuran.

ELORRIO A.B./M.O.

Elorrioko Udalak liberatu bi edukiko ditu hurrengo agintaldian: Idoia Buruaga alkatea eta Xabier Dominguez alkateordea. Buruagak %66ra murriztu du lanaldia, lana eta familia bateagarri egiteko asmoz, eta, berari laguntzeko, Dominguezek %50ean jardungo du. Uztailleko bilkuran hartu zuten erabakia, eta EAJk ez zuen ondo ikusi. Amatasuna eta lana uztartzearen eztabaida azaleratu zen orduan. Herriaren Eskubideak proposamena babestu zuen, eztabaidan sartu barik.

Udal jardunerako pertsona bi liberatzea "ona" eta "abergarria" dela uste du EH Bilduko alkateak: "Alkatearen irudiaren

atzean lantalde bat dago. Oso gustura izango naiz alkate; aurretik lan handia dugu egiteko, eta taldean egingo dugu lan".

EAJko Joseba Mujikaren iritziz, Buruagaren esanak "aitzakia" dira, eta erabakiaren atzean beste arrazoi bat dago: "Udala bakarrik kudeatzeko dituen gabeziak". Buruagaren esanetan, dedikazio osoan lan egin ez arren, alkate izateko gai da: "Inondik inora ez du esan gura beste edonork baino gaitasun gutxiago dudunik".

Buruagak 29.400 euroko soldata gordina edukiko du, eta Dominguezek 20.600 eurokoa. Urtean 13.000 euro gutxiago jasoko dute guztira, aurreko agintaldia kontuan hartuta.

Konpostatzeko kanpainarako ia 100 familia inskribatu dira

Aldundiak aurten ez du diru-laguntzarik emango, beraz, autokonpostagaz 2016an hasiko dira

OTXANDIO Joseba Derteano Herritar talde batek, hondakinak birziklatzeko kultura sustatu guran, konpostatzeko kanpaina abiatu zuen ekainean, eta ia 100 familiak erakutsi dute ekimenean parte hartzeko interesa.

Autokonposta –nork bere etxean egitekoa– eta auzokonposta –gune komunetan egitekoa– dira konposta egiteko landuko diren aukera biak. Autokonpostak, ordea, datorren urtera arte itxaron beharko du. Autokonposterako materiala interesatuei dohainik banatzea da asmoa, baina, Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi duenez, arlo horretara aurten bideratutako diru poltsa dagoeneko agorturik dago. Beraz, datorren

urtera arte itxaron beharko dute. 2016ko urtarriletik aurrera, diru-laguntza jaso ahala, kanpaina horretan izena emandako herritar guztiei erantzuten

Aurten ikastaroak antolatuko dituzte, eta auzokonposterako pare bat gune atondu ere bai

joango dira. Baina, bitartean, kanpainako hainbat atal garatzen joango dira udaleko diru-laguntza bati esker. Batetik, konpostaren gaineko ikastaroak antolatzeko asmoa dute, eta, bestetik, auzokonposterako pare bat gune atonduko dituzte.

la errifa guztiak saldu dituzte herriko jaietan

Sari nagusia 4.444 zenbakiari egokitu zaio

GARAI Markel Onaindia Garaiko jaien bueltan, errifa kaleratzen du Trumoitte kultur elkarteak, ekintzak finantzatzeko. Aurten errifa ia guztiak saldu dituzte, antolatzaileek azaldu dutenez.

Lau sari egon dira parte-hartzaileei eskaintzeko, eta laurak

banatu dituzte dagoeneko. Sari nagusia –bazkaria eta ostatua– 4.444 zenbakiari egokitu zaio. Ondorengo hiru sarien zenbakiak, berriz, 619, 2.020 eta 3.252 izan dira. Talasoterapia saio bat eta bazkari bi izan dira zenbaki horien jabeegi egokitu zaizkien sariak.

> DURANGALDEA ASTEON

Ska doinuak San Agustinen

ELORRIO > San Agustin auzoan jaiei ekin zieten atzo, Olazar auzo elkartearen eskutik. Gaurko, egun osoko egitaraua prestatu dute. 12:00etan meza eta argazki erakusketa izango dira. Arratsaldean umeek jolasak eta pailazoak izango dituzte gozagarri. Gauean, Itziarren Semeak ska talde bilbotarrak kontzertua eskainiko du.

Parra tabernako argazki lehiaketa

ELORRIO > Parra tabernak III. Argazki Lehiaketa antolatu du. Gaia Joseba Sarrionandia idazlearen aipu bat izango da: "Zabaldur lehiok, esan zuen amak, barruan gaua da". Lehenengo saria Errioxako bodega batera bisita, afaria eta gaua hotel batean izango da. Lanak urriaren 1etik 31ra bitartean aurkeztu ahalko dira.

Lehen sorospen ikastaroa

DURANGO > Durangaldeko Gurutze Gorriak lehen laguntzarako ikastaroa antolatu du urriaren 2rako eta azaroaren 7rako. Ikastaroan gaixoaren ebaluazioa, konorte galtzea, lipotimiak eta bihotzekoak landuko dituzte, besteak beste. Ur sorosle titulua lortzeko, eta lan eskaintza publiko batzuetan ere, beharrezkoa da ikastaroa.

Iritzia

4.107. eguna

Hiru euskal herritar Frantziako ipurtzuloan bahiturik. Deserrian. Elkarrekin, baina bakarturik, ezin elkar ikusirik. Isolamendu auzoan *quartier d'isolement, contradictio in terminis*. Plaza publikoak kaiola honekin gutxi du ikusterik. Zaila da deskribatzen. Patio eskubidea *droit* dugu, *dans le pays des droits de l'homme*, giza eskubideen herrian. *Droit*, eskuina da ere Molière-en hizkuntza honetan. Nire patioa berriz, ezkerrekoa da beti. Boteretsuen aurrean estutzen dudak ukabila bezala edo gau ilunenean uzkurten zaidan bihotz minbera bezalatsu. Nire ezkerreko patioak zortzi pauso ditu luze, zazpi zabal eta hatz puntekin ukitzen dut sabaia. Goizean ordu bat eta arratsaldean beste ordu bat. Ni eta patioa bakar-bakarrrik gaude. Tira, eguzki pisutsu hau ere agertu ohi da puntual hitzordura, kostata, tetsuko sare metaliko hirukoitz eta txarrantzen artean lekua egitea

lortzen duenean. Isiltasunak ere egiten digu konpainia. Eta jada lau gara. Patioa, eguzkia, isiltasuna eta ni. Ez dago gaizki. Kexatzerik ez. Kurloi bat ere entzun ohi dut batzuetan, urrunean, baina ikusi ez. Nahiko balu ere ezingo luke patioan sartu eta, egia esan, zer galdu ote zaio txoritxo askeari nire ezkerreko kaiola honetan? Ezer ez. Zulo honek ez du bizidunik merezi, ezta berau diseinatu, eraiki eta kudeatzen dutenak ere. Guk berriz, nik, hemen jarraituko dut, kaiola honetako bakardadearen konpainian. Bakarkako galdera erantzunetan. Makurtu nahi gaituzten aldiro, zutitzen ahalegintzen. Eusten. *Resistiendo*. *En résistance*. Noiz arte?

Azken orduko albistea: Beste lau euskal herritar atxilo hartuak Nafarroa Beherean. Artean, Xabier eta Iñaki. Kaiola hauek krudelkeriaz betetzen jarraitzeko beste lau bezero. Hau al zen bakea?

Ikusezinak

2000tik 2013ra bitartean 23.000 iheslari baino gehiago ito dira Mediterraneoko uretan hondaturik. Bi multzo handi bereizi behar dira hila-beteotan Europara datozenen artean: batetik, Magrebetik eta Saharaz hegoaldeko Afrikatik eten gabe datozenak daude, hemen lana dela jakinik. Bestetik, gerrari ihesi Siriatic, Eritreatik, Somaliatic eta Afganistandik datozenak. Libian bertan 600.000 pertsona daude Europara jauzia noiz egingo zain. 2014an 3.419 pertsona hil ziren, ACNURen arabera, Mediterraneoan. 2015eko apirilaren 19ra arte 1.654 pertsona hil dira Mediterraneoan itota. Hona bizirik heltzea lortzen duten asko kalean bizitzera eta kalean lan egitera behartuta daude. Kalean bizi, kalean hil. Alex zuen ize-

na, eta 26 urte zituen. 2011tik zegoen Bilbon, tarteka bazen ere, bizimodua ateratzeko asmotan sarri joaten baitzen beste hiri eta herri batzuetara. Martxoaren 20an hil zen, Bilbon, kuxta automatiko baten ondoan. Urtrilaren 26an etxerik gabeko beste lagun bat hil zen, Bilbon, eta apirilean, Getxon, beste bat. Gure herrira etorrita, hau da, Zornotzara, badakigu non egiten duten lo supermerkatuen ateetan eskatzen dabilzan pertsonak? Itsu eta presaka pasatzen gara euren aurretik, baina ikusten ditugu? Zelan ateratzen du aurrera bizimodua edukiontzietan zer edo zer jateko bilatzen duen emakumeak? Zergatik ez dugu indiferentziaz harago ezer sentitzen? Akaso pentsatzen ote dugu gure moduko pertsonak ez direla?

Iurdan Marfitegi Lizaso

Xabier Gutiérrez. Zornotza



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9, 48215
• Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (tarfeak barne).

Berbaz

Fede Mendizabal | Tabirako Saskibaloia Taldeko ohorezko presidentea | Durango, 1941

“Futbolaren aurrean ez dago ezer egiterik, oso argi dago hori!”

Tabirako Saskibaloia Taldean 55 urte egin ditu Fede Mendizabalek, eta ekainetik ohorezko presidente ere bada



> BERBAZ Aitziber Basauri
18 urte zituenetik Tabirako Saskibaloia Taldean egon da Fede Mendizabal. Zortzi urtean izan zen jokalaria, eta gero diruzain ibili da. Ekainetik ohorezko presidente izendatu zuten, Tabirako sustatutako balioak batzen dituelako. Oraindik ere laguntzen jarraituko du, Tabirako ia-ia hirugarren semea du eta.

Tabirakoren sortzaileetariko bat zara, eta lehenengo talde hartan ibilitakoa ere bai. Sortutako lehenengo talde hartako kide izan nintzen, zuzendaritzan beste batzuk ibili ziren. Basilio Arana izan zen Tabirakoko lehenengo presidentea. Gure kontura ibiltzen ginen saskibaloian, Maristetan. Gustuko nuen, eta, taldea sortzeko zela entzutean, izena eman nuen. Desegin egin zuten Frente de Juventudes taldeko Bilboko beste gazte batzuekin sortu genuen Tabirakoko talde hura. Lau bilbotar eta zortzi durangar ginen; 18 urte nituen orduan.

Gogoan dituzu urte haiek?
Jokalaria onak Bilboko haiek ziren, batez ere bi; guk ezer gutxi genekien. Emilio Baqué ibili zen

“*Partiduak ezin ditut ikusi. Oso-oso urduri jartzen naiz; semeak jokatzeko zuenean ere ez nintzen joaten*”

“*Ez da futbolearen bestekoa, baina gero eta handiagoa da umeek sufritzen duten presioa*”

entrenatzaile lanetan. Taldea Javier Urzelayren ekimenez sortu zen; bilbotarra zen, eta komertzial zebilen hemen.

Txapeldun izan zineten lehenengo urte horretan.
Bigarren Erregionalean txapeldun geratu ginen. Zornotzaren aurka jokatu genuen finala, eta, luzapen bi jokatu ondoren, irabazi egin genion. Lehenengo Erregionalerako igo ginen. Lagunaren kategorian izateko, baina, ez da ardura bat.

aurretik, Lehenengo Maila eta Bigarren Maila zeuden. Gaur egun 36. mailan egongo ginatke! [Barrez].

Aho batez erabaki dute ohorezko presidente izendatzea. Nola hartu zenuen berria?

Oso pozik. Baten baino gehiagotan eskaini didate Tabirakoko presidente izatea, baina ez dut inoiz horretan sartu gura izan. Beste gauza batzuk egiten ditut, baina hori ez. Partiduak ere ezin ditut ikusi. Oso-oso urduri jartzen naiz. Taldeak ikusi ondoren, eta badakidanean irabazi egingo dutela, orduan joaten naiz ikustera. Semeak jokatzeko zuenean ere ez nintzen joaten. Ohorezko presidentea izatea, baina, ez da ardura bat.

Taldeakide izan zenituenak ere egon ziren bertan.

Bai. Jose Antonio Agirre, Antonio Corrales, Jesus Mari Merino eta Javier Urzelay egon ziren. Emilio Baqué ez zen etorri, ezkontza bat zuelako. Hala ere, orain, bazkaltzeko elkartzeko hasi gara seiok. Urriaren 20an berriro batuko gara. Urtero egin gura dugu bat, eta posible bada, bi.

Tabirakoren balio guztiak batzen dituzulako eman dizute ohorezko makila. Zeintzuk dira balio horiek?

Ahal den guztia ematea. Tabirakoren denak dira amateurrak; ez du inork kobratzen, ez jokalariek, ez entrenatzaileek. Gazteak kirol munduan, eta ez beste inon, sartu daitezela saiatu gara beti. Batez ere, 1968an hasi eta 70eko hamarkada hartan. Droga itzelezko mina egiten zebilen.

Bide berari eutsi diozue...

Jarraipena eman diogu beti. Unean uneko presidentea aurretik Zuzendaritza Batzordean egon izan da.

55 urte hauetan momentu onak eta txarrak egongo ziren.

Gure atzetik Juanjo Morenogaz talde oso ona sortu zen. Haur kategorian Espainiako txapeldunak izan ziren, eta gazte mailan hirugarren geratu ziren. Bartzelonari eta Juventuti irabazi zioten, eta Real Madrilen kontra galdu egin zuten, justu-justuan. Bigarren Mailara igo ziren, ACB ligaren gelaurrea zenera. Gugana etortzen ziren taldean sartu guran. Oso onak izan ziren 1976-77 denboralditik 80ko har-

makada amaitu bitarteko urteak. Gero, talde onak egon dira, baina indar handikoa zen hura.

Denak durangarrak...

Bai. Guk bi denboraldi egin eta gero hartu zen erabakia: taldeak durangarrek osatuko dira. Aipatutako urrezko urte horien ostean urte makalagoak ere etorri ziren; kategoriaz bajatzekotan egon ginen. Durangotik kanpo jokalariek bilatzeko proposamena ere egin zuten, baina, edozein mailatan egonda ere, bertakoekin jarraitzea erabaki genuen.

Asko aldatu da saskibaloia.

Bai horixe, eta ez bakarrik jokatzeko eran. Gaur egun, entrenatzeko formazioa duen jende asko dago, eta gu ez gara profesionalak. Umeak hezteko eskoletan behar dira pertsonak, eta ez dago horretarako jende nahikorik.

Saskibaloiarekiko zaletasun handia dago Durangon?

Nesken 36 talde daude, eta mutilenak 15 talde dira. Hala ere, Merkatu plazan jokatzeko zenean jende gehiago batzen zen partiduak ikustera.

Nesken talde asko!

Herriko sei ikastetxeetan dago talde bat, eta denak datoz Tabirakora. Larregi dira, ezin ditugu denak hartu, eta arazoak sortzen dira. Mutilekin justu-justuan sortzen dugu taldea; gehienez talde bi. Neskekin, baina, mutilekin gertatzen ez dena gertatzen da: aurten, adibidez, ez dugu nesken talde erregionala osatu –seniorrak, 18 bat urtekoak–. Nesken hamar talde ditugu, sei kadete, bi junior eta bi senior. Adin batera iristean, utzi egiten dute. Lagun taldeak sortzen dira, eta baten batek utziz gero... Aurten, talde federatuak mugatuko ditugu, eta eskola kirolean sortuko ditugu ligak.

Mutilek futbola dute gurago?

Dudarik gabe! Futbolaren aurrean ez dago ezer egiterik, argi dago!

Gaztetxoek saskibaloian sufritu beharreko presioa handia da?

Ez da futbolaren mailara iristen, baina gero eta handiagoa da presioa. Gurasook behar ez dugun tokian sartzen gara. Saskibaloian buruzko ezagutza handitu ahala gehitu da presioa.

Ematen du durangar guztiak egon direla Tabirakon.

Bai. 25. urteurrenean 25 talde genituen. Orain, 50etik gora. Ia 900 bazkidera heldu gara aurten.

JAIAK!

ELORRIO
2015eko IRAILA



**Elorrioko Udalak Ferixa Nausiko
jai zorienttsuak opa dizkizue!**



INDARKERIA
SEXISTARIK, EZ!



Elorrioko udala

ELORRIKO JAIEN EGITARAUA

IRAILAK 4, barikua

Egun osoan, aukeren azoka, Elizpean.

18:00 Pilota partiduak, plazako pilotalekuan.

*Euria egiten badu, Hilario Azkarate kiroldegiko pilotalekuan izango dira.

12:00 Eskulan-apaingarri tailerra, txosnagunean.

20:00 Txosnen irekiera, txosnagunean.

23:00 Kontzertuak, txosnagunean. Sermond's + Governors.

00:00 Eta abar kolektiboa, Sound system, gaztetxean.

IRAILAK 5, zapatua

12:00-14:00 / 17:00-20:00 Hour parkeak.

12:00 Bermuta + razioa txosnagunean.

16:00 CD Elorrio B - Durangoko Bikainak, Elizalden.

17:30 Elorrioko II. Artzain Txakur Txapelketa, San Agustinen.

18:45 Apar jaia, pilotalekuan.

19:00 Brincadeira perkusio taldea -lehenengo saioa-, plazan.

20:00 Txupinazoa eta pregoia, plazan, Garamenditar Agustin musika eskolaren eskutik.

20:05 Brincadeira perkusio taldea -bigarren saioa-, plazan.

23:00 Danborrada, plazan.

00:00 Kontzertua, gaztetxean. Zain + Anger.

00:20 Zezensuzkoa, plazan.

00:30 The Ladies Band, Urarkan.

23:30 DJak, txosnagunean.

IRAILAK 6, domeka

10:00 Abere eta nekazaritza azoka.

Goizean, txistularien kalejira.

11:00 CD Elorrio - Ermua, Elizalden.

13:00 Kalejira, Asoc. Cultural M'Lomp: Senegalgo musika eta dantza.

16:00 Mahai jokoak txosnagunean.

18:00 Afizionatu mailako esku pilota partiduak, Hilario Azkarate pilotalekuan.

19:00 Umeen danborrada, plazan.

20:00 Orquesta Kosmos - lehenengo saioa-, plazan.

20:00 Kontzertua, gaztetxean. Bi bala.

22:00 Zezensuzkoa, plazan.

22:15 Orquesta Kosmos -bigarren saioa-, plazan.

16:00 Gazteentzako mahai-jokoak, txosnagunean.

20:00 Kontzertu akustikoa + sardina-jana, txosnagunean.

21:30 Sardina-jana, txosnagunean.

IRAILAK 7, astelehena

14:00 Kuadrillen arteko bazkaria eta tortilla lehiaketa, Aldatsekuan. *Mahai eta aulki banaketa 09:00etatik aurrera.

16:30 Artistas del Gremio (animazioa), Aldatsekuan.

18:00 Kuadrillen jaitsiera, kalejira. Diskoteka mugikorra.

18:45 Kuadrillen arteko jokoak. Makro disko Elorrio -lehenengo saioa-, plazan.

19:30 Erromeria Arantza eta Pantxogaz, Urarkan.

21:00 Karaokea, txosnagunean.

22:15 Zezensuzkoa, plazan.

22:30 Makro disko Elorrio -bigarren saioa-, plazan.

IRAILAK 8, martitzena

12:00-14:00 / 17:00-20:00 Hour parkeak.

18:00 Grafiti tailerra, txosnagunean.

19:30 'Big Band Boom dantzatu dezagun', Urarkan.

18:00-21:00 Indarkeria matxista saihesteko informazio gunea, plazan.

20:00 Jaietan puntu beltzak identifikatzeko ordubeteko tailerra, neska gazteei zuzenduta, plazan.

21:30 Zine foruma

IRAILAK 9, eguaztana

16:30 Umeentzako jolasak, plazan.

17:00 Ginkana, plazan.

18:00 Sukaldaritza tailerra txosnagunean.

18:00 Txokolatada, plazan.

18:00 V. Elorrio Hiribildua Elkartasuna Hiruko Torneo: CD Elorrio - Athletic - Amorebieta, Elizalden.

18:30 Kiki, Koko eta Moko pailazoak, plazan.

21:00 Afaria, txosnagunean.

IRAILAK 10, eguena

17:00 Nesken areto futboleko lauko torneo, kiroldegian. Taldeak: Elorrioko Buskantza, CD Elorrio, Eskoriatza, talde gonbidatua.

22:00 Li. Idi Proba Txapelketa, probalekuan.

18:00 Argazki lehiaketako argazkien erakusketa, txosnagunean.

19:00 Pintxo-potea, txosnagunean.

IRAILAK 11, barikua

11:00 Truke azoka txosnagunean.

12:00 Hildako jubilatuen omenezko meza, Sortzez Garbiaren Basilikan.

12:00-14:00 / 17:00-20:00 Hour parkeak.

13:00 Piskolabisa Elorrioko jubilatuentzat, Aldatsekuan.

Arratsalde, Areta futbol partidak, kiroldegia. **17:00** Elorrioko Buskantza B eta CD Mondrate

18:30 Elorrioko Buskantza A

20:00 Elorrioko Buskantza beteranoak eta Kurutzia beteranoak

18:00 Batukada tailerra txosnagunean.

18:30 Ibai Berriak Orkestra, Aldatsekuan. Erromeria eta dantza txapelketa

19:00 Egundo I - Kalez kale kantuan. Urarka eta plazan.

19:00 Errugbi partida, Errugbi zelaian.

19:00 Kontzertu ostean, pintxada Oi!, gaztetxean.

Dj Ivi, el destripador + Dj Lordrebel + Dj Motherfucker.

19:30 The Funes Troup. Animazioa eta antzerkia, plazan.

22:00 Li. Idi-proba txapelketa, probalekuan.

22:15 Zezensuzkoa, plazan.

22:30 Babel Orkestra, Urarkan.

22:30 Kontzertua, gaztetxean. Shock Waves + Knockout + Tears&Beers.

23:00 DJ Kapela. Fluor gaua txosnagunean.

IRAILAK 12, zapatua

08:00 Sukalki eguna, Aldatsekuan.

Goizean, Umeen txapelketa, Elizalden.

12:00-14:00 Hour parkeak.

Arratsalde, Areta futbol partidak, kiroldegian.

17:00 Elorrioko Buskantza gazteak eta C.D. Mondrate.

18:30 Elorrioko Buskantza C eta Mendibeltz K.T.

17:30 Karrozen jeitsiera: Durangoko Batukada Feminista.

18:00 Txokolatada, plazan.

18:45 DJ Oihan Vega, plazan.

19:30 Taberna Ibiltariaren euskal kantak, Urarkan.

21:00 Lo tuyo y lo mio - Musikala, Arriolan.

22:00 Li. Idi-proba txapelketa, probalekuan.

22:00 Elektronika gaua by Summum Art, gaztetxean.

22:30 Su artifizialak, galartzarrenan.

23:00 Custom Orquesta, Urarkan.

23:00 Kontzertua txosnagunean. Esne Beltza + Skakeitan.

IRAILAK 13, domeka

Goizean, "Elorrioko kulturak dasta ditzagun", Plazako frontoian. Elkartasunaren jaialdia.

Goizean, Alebinen txapelketa 2004-2005, Elizalden.

13:00 Herri kirola, plazan. Bihurri aita-semeak, Zubizarreta eta Ioritz Gisasola aizkolariak Joseba Ostolaza eta Udane Ostolaza harrijasotzaileak Oskar Basatxu eta Laura Basatxu Iparraldeko jokoak

18:00 Bertso saioa, Casajaran. Gorka Lazkano - Iratxe Ibarra - Unai Iturriaga - Miren Amuriza Gai jartzailea: Maite Berriozabal.

20:00 Plazako dantza tradizionalak Txertubik alaituta, plazan.

IRAILAK 14, astelehena

22:00 Li. Idi-proba txapelketa, probalekuan. Sari banaketa.

Galdaragintza
Forja artistikoa
Enpresen mantentzea



EZAGUN, S.L.

Berriozabalbeitia, 10
Tel.: 946 584 547 - Faxa: 946 582 888
48230 ELORRIO (Bizkaia)
ezagunsl@ezagunsl.e.telefonica.net




Eugenio Sánchez
Agustín Urien

ESTETIKA eta TATTOO ZENTROA



anek
ESTETIKA
TATTOO

San Juan kalea, 23 beheka 3
Tel.: 944 008 846 · ankestetika@gmail.com



Iazko jaietan ateratako argazkia.

Musika eskolak abiatuko ditu Ferixa Nausiko jaiak

Irailaren 5ean jaurtiko du txupinazoa Garamenditar Agustin musika eskolak

► **JAIK!** Jone Guenetxea

Aurtengo Ferixa Nausikoetako jaiak musikagaz lotura berezia izango dute. Izan ere, aurten 25. urteurrena ospatuko duen Garamenditar Agustin musika eskolako kideak izango dira txupinazoa jaurtiko dutenak. Rosa Azkarate musika eskolako zuzendaria da duela 21 urtetik, eta txupinazoa jaurtitzea "ilusio handiz" hartu dutela aitortu du: "Gutaz gogoratzea ohore handia da". Udaletxeko balkoitik txupinazoa jaurtitzeko unea sorpresaz bete egongo dela aurreratu du Azkaratek. Zuzendaria bera izango da pregoia irakurriko duena.

25 urte musika irakasten

Garamenditar Agustin musika eskola elkarte gisa jaio zen duela 25 urte, musika eskola izateko bokazioagaz. Hasieran 80 ikasle gaz hasi ziren, eta jendeak kontserbatorioan musika ikasketak egin gura zituela gogoratu du Azkaratek. 1992ko legeagaz mu-

sika eskola bihurtu zen elkar-
tea, eta 4 urtetik gorakoei mu-
sika irakasten hasi zitzaizkien.
Une honetan, Elorrioko musika

**Rosa Azkarate, musika
eskolako zuzendaria,
izango da Ferixa
Nausiko jaietako
pregoia irakurriko duena**

**Aurtengo jaietako
erronka nagusia
murrizketei aurre
egitea dela aitortu du
Buruaga alkateak**

eskolan 248 ikasle dabilta. Az-
ken boladan, ikasleen profila
aldatzen dabilela nabaritu du
zuzendariak. Azkaratek dioe-

nez, gero eta jende nagusiagoak
ematen du izena. Horietako ba-
tzuk aurretik ikasle izandakoak
dira, eta, bere garaian ikasketa
arautuak egin ondoren, orain
"disfrutatzer" doaz. Zuzenda-
riak beste ikasle profil bat ere ai-
patu du: umeak ikastera doazela
baliatu, eta izena ematen duten
gurasoak.

Ekitaldi herrikoiak

Musika eskolako kideek txu-
pinazoa jaurtitzeagaz batera
hasiera ofiziala emango diete
jaii. Aurtengo jaietako erron-
ka nagusia, baina, aurrekontu
murriztuari aurre egitea izan
dela aitortu du Idoia Buruaga
alkateak. Hala ere, programa-
tzailak eta Jai Batzordeak eu-
ren lana "primeran" bete dutela
esan du. Ildo horretatik, ekitaldi
herrikoiak lehenetsiko dituztela
gaineratu du. Ekitaldien artean,
Elorrioko II. Artzain Txakur
Txapelketa lehenengo zapatuan,
irailak 5, izango dela adierazi



Musika eskolako ikasleak udaletxeko balkoira igoko dira txupinazorako.

du Buruagak. Tradizioz bete-
tako ekitaldiek ere ez dute hu-
tsik egingo: Sukalki Egunak,
danborradak eta erromeriak,
besteak beste. Horretaz gainera,
Buruaga alkateak azaldu du ez

jaietan, ez gainontzeko egune-
tan, Elorrioren ez dutela jarrera
matxistarik, sexistarik eta in-
darkeriazkorik onartzen. Ildo
horretatik, Jai Batzordeak gaia
landu duela nabarmendu du.

JUAN BERISTAIN
NEKAZARITZARAKO TRESNAK
Salmenta eta konponketa

HONDA **STIHL** **SAME** **pasquali** **VIKING** **CARON** **BCS**

Berriozabalbeitia, 14 - Elorrio - Tel./Faxa: 946 231 803 - juanberistain@telefonica.net • www.beristain.eus



parra@parrataberna.com www.parrataberna.com

BERRIOTHOA 43, 48230 ELORRIO - TEL.94 658 34 65

Entsaladak Ranzak
Ardoak Pizpak
Otxartekak Olibaskak
Postreak...

Nizeto Urkizu, 37-39 | 48230 ELORRIO Bizkaia
T 946 550 266

Tel.: 94 658 31 19 Elorrio (Bizkaia)

SAGARDOTEGIKO MENUA
GOSARIAK MERIXENDAK
BAZKARIAK EGUNERO ZABALIK
AFARIAK MENU BEREZIAK

San Fausto kalea, 25 - Elorrio - 94 658 29 67

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Errazioak

Eguneko menua eta
asteburuetan menu bereziak

Urarka, 13
946 821 299



Arregi arkitektura ikasketak amaitzen dabil.

“Kartel honegaz azokari keinu bat egin gura izan diot”

Maialen Arregiren kartelak iragarriko ditu Ferixa Nausikoak

> JAIK Jone Guenetxea Maialen Arregik bigarren bezarrez irabazi du Elorrioko jaietako kartel lehiaketa. Orain bi urte ere epaimahaiak elorriar gazte honek diseinatutako kartela aukeratu zuen Ferixa Nausikoak iragartzeko. Arkitektura ikasleak azokako eta jaietako elementuak uztartu ditu *Uzta oparoa* kartelean.

Zein irizpide jarraitu duzu jaietako kartela sortzeko?

Kartel honegaz azokari keinu bat egin gura izan diot, feria delako berez jaietaren ematen diona. Nekazariak urte osoan jasotzen dute uzta, eta azokara ekartzen dute. Beraz, jaietan badugula zer jaso islatu gura izan dut kartelean. Kuadrillen Eguna, Sukalki Eguna, txupinazoa... Hori izango litzateke zaku horretan jasotzen dena.

Diseinu aldetik, zelan landu duzu kartela?

Zakuaren irudia argazki bat da berez, eta letrak-eta era digitalean eginda daude.

Orain dela urte bi kartel lehiaketa irabazi zenuen. Iaz ere lanen bat aurkeztu zenuen?

Bai, aurkeztu nuen, baina ez nuen aurten zortea izan, eta ez nuen irabazi. Herriko jaiak izanda, gustuko dut parte hartzea, eta diseinuan ibiltzea ere bai. Sari bat lortzeko aukera ere hor dagoenez, azken urteotan urtero parte hartu dut.

Aurten irabaztea espero zenuen?

Egindako kartelagaz gustura gelditu nintzen, baina gauza oso subjektiboa da. Agian zuri gustatu ahal zaizu, baina he-

rriak eta epaimahaiak hor badu zeresana. Beraz, norberak egindakoagaz gustura gelditzea da garrantzitsua.

Norberak diseinatutako kartela norberaren herrian alde guztietan ikusteak zer sentazio sortzen ditu?

Emozioa sortzen dit. Irabazi duzula esateko deia jasotzen duzunean, emozio handiz jasotzen duzu. Udaletxean kartela formatu handian jartzen dute, Musikairekoa egon den lekuan, eta saltokietan ere bai. Familiakoak hor ibili ziren kartelak eskatzen, etxean gordetzeko.

Beste kartel lehiaketaren batean parte hartu izan duzu?

Iurretako jaietako kartel lehiaketan lan bat aurkeztu nuen, baina, bestela, Elorrioren bakkari hartu dut parte.

Sukalki Eguneko menua: gisatua, mozorroak eta karrozak

Jaietako ekintzarik jendetsuenetakoa izaten da urtero Sukalki Egunekoa

> JAIK Joseba Derteano Urtea joan eta urtea etorri, Sukalki Egunean nortasun propioa lortu du Elorrioko jaien barruan. Ferixa Nagusiko jaien bigarren zapatua jaien barruko beste jai bat bihurtzen da Aldatsekuan. Azken lau-bost urteetan Mozorro Eguna ere izaten da egun berean, eta osagai berezi horrek zapora gehigarri bat ematen dio berez erakargarria den menuari.

Iturritzoroko elkarteak antolatzen du Sukalki Eguna, eta urtero 120 bat gisatu lapiko aurkezten dituzte txapelketara. Aurten ere kopuru horren bueltan ibiltzea espero dute.

Izen-ematea doakoa da, eta egunean bertan, irailak

12, 08:00etatik 10:00etara eman ahalko da izena Aldatsekuan bertan. Nahitaezko osagaiak okela -azpizuna izan ezik- eta patata dira. Gisatuari laguntzeko saltsarako barazkiak (kipu-

Aldatsekuan bazkaldu ostean, karrozen jaitsiera egingo dute plazaraino, batukada feministak lagunduta

la, porrua, piperra, berakatzua, ilarra eta azenarioa) ardoa eta likoreak erabili daitezke. Ezin daitezke perretxikorik erabili.

Morrozo Egunari dagokionez, *kolore laranja* da txosnaguneak mozorroak prestatzeko proposatu duen gaia. Herriko tabernen gaineko auzien kontra sortutako Libre dinamika darabilen kolorea da laranja eta horregatik proposatu dute. Bazkalostean, 17:30 inguruan, karrozen jaitsiera hasiko dute Aldatsekuatik plazara, Durangoko batukada feministaren danbor hotsek lagunduta. Denak plazan elkartzen direnean, urteroko ohiturari eutsiz, askotariko karrozen aurkezpena egingo dute. 18:00etan, nagusien La Esperanza elkarteak txokolata eskainiko du toki berean, eta ostean, Oihan Vegak disko festa hasiko du.



Iaz, Sukalki Egunean, Aldatsekuan harturiko irudia.

C/ Elizburu, 46 -48
Tel.: 94 682 10 79
Tel./Fax: 94 682 00 50
48230 ELORRIO (Bizkaia)

ALBAÑILERIA KURUTZONDO S.L.

ALBAITARITZA KLINIKA
www.zaindu.net

zaindu albaitaritza
Ibarra, 8 - 48230 Elorrio
Tel.: 946 820 494

ONTRACK
946 58 46 73 BERRIO-OTXOA 18, ELORRIO
WWW.ONTRACKENGLISH.COM
2015 - 2016 Matrikula epea zabalik

tel. 94 658 29 96
630 64 35 99
Nizeto Urkizu 14. behea
Elorrio (48230) Bizkaia

NUHEO

Elorrioko hogeitik gora ekoizlek ipiniko dute erakusmahaiak azokan

Irailaren 6an, 10:00etatik 14:00etara egongo da Ferixa Nausiko azoka zabalik



Azken urteetan bezala, 60 erakusmahai ipiniko dituzte guztira.

> AZOKA Itsaso Esteban Ikusi, usaindu, dastatu, eta nekazarien, abeltzainen eta artisauen eskutik kalitate gorene-

ko produktuak erosteko aukera eskainiko du, beste urte batez, Elorrioko Ferixa Nausikoetako azokak. Irailaren 6an, 10:00eta-

tik 14:00ak arte egongo da azoka bisitatzeko aukera. Elorrioko, Durangaldeko eta Euskal Herriko hainbat lekutako ekoiz-

leek euren erakusmahaiak atonduko dituzte Ferialekuan.

Duela urte batzuk erakusmahai kopurua murriztu ostean, azken urteetan bezala, 60 postu prestatuko dituzte bisitariarentzat. Nekazariak landutako fruta eta ortuariak, eta baserrietan egindako askotariko jakiak ipiniko dituzte salgai lehenengo sektoreko langileek Elorrion. Ogia, pastelak, gazta, ezitia, ahate-eratorriak eta txakolina dastatu eta erosteko aukera eskainiko dute, adibidez. Ohi bezala, bestalde, artisauek eta abeltzainek ere euren lekua edukiko dute Elorrioko azokan.

Azokan ipiniko dituzten 60 postuetatik hogeitan ekoizle elorriarren ortuari, jaki eta esku lanak egongo dira

Ekoizle horietariko asko urtero Elorrioko azokan parte hartzen dutenak dira, baina erakusmahaiak lehenengoz ipiniko duenik ere izango da: Elorrioko hainbat ekoizle gazteren lanak ere izango du isla azokan. Gainera, azokan izango diren 60 postuetatik hogeit hamarrek ipinitakoak izango dira.

Elorrioko nekazariak hazitako ortuariak, Elorrion egindako gazta, ogia, txakolina,

gozoak, eta txerrikiak, zein Elorrioko artisauek egindako askotariko eskulanak izango dira azokan eskuragai. Eskulangile elorriarrek paperagaz eta zuragaz egindako bitxiak, larruzko oinetakoak eta panpinak eramango dituzte, esaterako, irailaren 6ko azokara.

Durangaldeko ekoizleak Elorriokoen ondoan, Durangaldeko beste herri batzuetatik etorritako ekoizleen lanak ere izango du lekurik irailaren 6ko azokan: Berrizko hainbat nekazari, Otxandioko eta Abadiño-ko gaztagile bik, Mallabiko eta Mañariko okin eta gozogileek, Iurretako txakolingile batek, eta Durangoko eta Atxondoko bitxigileek ere ordezkatzeko dute Durangaldeko nekazaritza eta artisautsa, Elorrion.

Gipuzkoako, Nafarroako, Arabako eta Bizkaiko beste hainbat txokotatik ekarritako produktuak ere izango dira Ferixa Nausiko jaietako azokan, eta baita saskigintza lantzen duen Kantabriako eskulangile baten lanak ere.

Azoka zabalik egongo da 10:00etatik 14:30era arte, eta, ohi bezala, Elorrioko txistulari taldearen kalejirak ipiniko dio doinua goizari.

Gazta lehiaketa ere burutuko dute, urtero bezala. Izena ematen duten gaztagileetan zein den onena erabakiko du epaimahaiak.

Esne Beltzak dantzarako deia egingo du txosnagunean, musika fusioagaz

Irailaren 12an joko du Esne Beltzak, Skakeitan taldearen ostean

> MUSIKA Markel Onaindia Elorrioko Ferixa Nausikoen egitarauak hamaika eskaintza dakartzat jaietan ondo pasatu gura dutenentzat, eta, zelan ez, musikariek ez da faltako. Kalean, txosnagunean eta gaztetxean estilo askotako emanaldiak eskainiko dituzte. Horien artean, Esne Beltza taldearena nabarmentzen da, gazteen artean, batez ere,

arrakasta handia daukan taldea delako. Musika estiloen fusioa lantzen du, eta dantzarako deia egingo du.

GoraGO Tour izeneko biran dator Xabi Solanok gidatzen duen taldea Elorrion. 2014an kaleratu zuten azken diskoa, *Gora* izenekoa, eta aurten bigarren bira bat garatzen dabilta disko horretako abestiak oinarri har-

tuta. Irailaren 12an izango da Esne Beltzaren hitzordua, eta aurretik Skakeitan taldeak joko du.

Bestalde, gaztetxean ere hainbat egunetan egongo dira kontzertuak. Irailaren 6an, adibidez, Aitzol Barandiaran eta Iñaki Gurrutxaga bertsolarien Bi Bala musika taldea etorriko da ikuskizuna ematera.



Xabi Solano trikitilaria da Esne Beltza taldeko abeslaria.

Argiñeta *jai zoriontsuak izan!*
 Hirigintza eta inmobiliaria bulegoa *zure konfiantzazko inmobiliaria*
 Urarka, 1 - 48230 Elorrio • Tel.: 946 820 041 - Faxa: 946 231 630 • argineta@euskalnet.net • www.argineta.net

AZKARGI
 GARBIKETAK
 Bulegoetako eta Industrietako mantentze-lanak, obra osteko garbiketa, kristalizatuak eta abar
 Goleta, 10 - 2 esk. - ELORRIO Tel.: 946 820 991

berriozabaleta
 • Iturgintza • Berokuntza
 INSTALATZAILE BAIMENDUA *jose miguel acedo*
 mug.: 609 381 887 • tel./fax: 946 231 855
 48230 Elorrio - Bizkaia • berriozabaleta@yahoo.es

Eka 20
 arkitektura

Silvia Urrutxi Arkarazo
 Tel.: 946 231 847
 Ereka kale, 20, 2A - Elorrio



Hamar urte dira Iker Alberdik Elorrioko Aldape auzoko baserrian txerri haztegia ipini zuela.

“Gure produktuak ezagutzera emateko aukera ona da azoka”

Txerritik eratorritako produktuak salduko ditu Iker Alberdik Elorrioko azokan

> **ABELTZAINZA** Itsaso Esteban Pernila, paleta, txorizoa, saltxitxoia, solomoa eta pateak salduko ditu Elorrioko Aldape baserrian

txerritegia daukan Iker Alberdik, irailaren 6ko Elorrioko Ferixa Nausiko jaietako azokan. Kanpoan hazitako txerriak dira

produktu horiek egiteko hazten dituztenak, lehengaiekin egin-dako pentsuagaz elikatutakoak. Aldape auzoko Amandarro ba-

serriko haztegiaren ondoko landan eta hariztian ibiltzen dira Alberdik 22 astez hazten dituen txerriak. Bere berbetan, “horri esker, sortutako produktuen be-reizgarri nagusiak zaporea eta kalitatea dira”.

Iaz ipini zuen Iker Alberdik Elorrioko jaietako azokan erakusmahaia lehenengoz, eta, aurtun ere, “batez ere nire lana eta gure produktuak ezagutzera emateko aukera ona” delako joango da. Elorrioren urtean egiten diren hiru azoketan parte hartu ohi du: abenduko Buskantz Jaian, bigarren eskuko azokan eta Ferixa Nausikoan.

Txerrizaleok elkarte

Txerrizaleok elkarteak kidea da Iker Alberdik, eta elkarte horren bitartez egiten du produktuen komertzializazioa; Elorrio, Durango, Abadiño, Zornotza eta Zaldibarko harategietan, esaterako, badauzkate euren produktuak, eta ostalaritzara ere bideratzen dute beste parte bat.

Elkartean sortzen den jeneroaren %80 freskoan saltzen dutela azaldu du Alberdik, eta %20 produktuen elaboraziora bideratzen dute: “Guk lehengaia ipintzen dugu, eta *makila* deitzen dena egiten dugu: material horiek lantzen dituztenei helarazten diegu lehengaia”.

2004. urtetik dabil Iker Alberdik txerriak hazten, nekazaritza ingeneritza teknikoak ikasi ostean, Txerrizaleok elkarteak kide egin zenetik. “Ikasketak amaitu, eta Elorriora bueltatu nintzenean, aitatik behiak kenduak zituen, eta lursail handia geneukan erabili barik”, dio. “EHNE elkarteagaz harremanetan jarri, eta txerri haztegia ipintzea erabaki nuen”.

Alberdik azaldu du hasi zenean salmentarena zela gehien arduratzen zuen arloa, eta komertzializazioa elkartearen bitartez egin ahal izatea “oso lagungarria” iruditu zitzaioela.

Txerriak mendian hazten dituzten Bizkaiko, Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroako 31 baserritarrek osaturiko elkarteak Txerrizaleok. Zestoan dauka egoitza, eta baita hilketa, zatiketa eta banaketa biltegia ere. Iker Alberdikaren berbetan, “EAEn jaten den txerriaren %7 inguru da elkarteak kide diren baserrietan hazitakoa”.

Elkartearen hiltegiaren ere egiten du Alberdik lan, txerriak haztetik bakarrik bizitzea ezinezkoa delako: “Beste ustiapen txiki bat daukan baserritarrak bere jarduna osatzeko oso aproposa da txerritegia: aberastu ez zara egingo, baina inbertsio handirik ere ez da behar”.

Gonbidatu zuen Ikastetxea!

FUNDACIÓN EROSKI zurekin

ESKOLA OSASUNTSUA

Energia hazteko

EROSKI FUNDAZIOA zurekin

ZARATE ELEXPE

E R A G I L E A K



 Durangoko herrigunean

 Energia-eraginkortasun handiko etxebizitzak

 Hiriko txaletak

 Oiz mendira begiratokiak

 Leku zabalak

Etxebizitzak salgai
1, 2, 3 eta 4 logelatakoak

Laster hasiko gara eraikitzen

Elorrio

2 adosatu salgai



Adosatuak eraikitzeko proiektua Galartzauria kalean "energetikoki ekoeraginkorrak"



Garajeak salgai

Nizeto Urkizu
35, 37, 39



JAIAK!

IZURTZA
2015eko IRAILA

denon artean!



taño
ET
Orta
Lejar

ALDE
Ortuzar
ETXAN
Bitaño
ejartza

taño
uzar
ejar
ETX
LIZALDE
Lejartza

ELIZALDE ETXANO Ortuzar

ejartza Bit
NO Lej

2015 ETXAN

Ortuzar Lejartza ELIZAL

artza ETXANO Bita

tuzar Lejartza ELI

ALDE Bitaño ET

TXANO Lejartz



Ondo pasatu
Izurtzako
jaietan!



IZURTZAKO JAIEN EGITARUA

IRAILAK 4, barikua

20:00 Txupinazoa eta triki-poteoa.

23:00 Kontzertuak, gaztelekuan.

IRAILAK 5, zapatua

12:00 Paella lehiaketa.

13:30 Kartelada.

14:30 Paellen aurkezpena.

15:00 Herri bazkaria eta jokoak (bazkalostean).

18:00 Bingoa.

IRAILAK 6, domeka SANTA AGEDA

10:00 Kalejira Jaizale taldeagaz.

11:00 Meza, Santa Ageda basilizan.

12:00 Mendigain dantza taldea.

13:00 Bertsolariak: Iratxe Ibarra, Oihana Bartra eta Erika Lagoma.

14:30 Herri bazkaria.

16:00 Eriz magoa.

17:00 Apustu herrikoia.

19:00 Lotxo taldea.

IRAILAK 8, martitena ANDRA MARI

11:00 Meza, Erdoitzako basilizan.

12:00 Mendigain dantza taldea.

16:00 Umeentzako jolasak.

17:30 Pepa eta Kutxo pailazoak.

IRAILAK 11, barikua

20:00 Antzerkia: 'Errautsetatik erne', Muxikako andreen eskutik.

IRAILAK 12, zapatua

09:30 XXIV. Mendi Bizikleta Martxa.

18:00 Igel txapelketa.

19:00 Tortilla txapelketa.

20:30 Tortillen aurkezpena.

21:30 Herri afaria.

23:00 Luhartz.
Bukatzean, DJak gaztelekuan

IRAILAK 13, domeka SAN TOMAS

10:00 Kalejira Jaizale taldeagaz.

11:00 Meza, Santa Ageda basilizan.

12:00 Mendigain dantza taldea.

12:30 Bertsolariak: Miren Amuriza eta Gorka Lazkano.

13:30 Gorriti eta bere abereak.

14:00 Jubilatuen bazkaria.

17:00 Mus txapelketa, Argintxu elkartean.

RECUPERACIONES Y TROCEADOS, SAL

Elizalde auzoa, 47
Tel. / Faxe: 94 681 89 79
48213 IZURTZA
info@recytro.net
www.recytro.net



Foseco Española, S.A.
Elizalde auzoa, 5 - 48213 Izurtza (Bizkaia)
Tel. 94 620 25 00 / Faxe. 94 620 37 73
115 Posta Kutxa - 48200 Durango (Bizkaia)

Galdaketa eta
siderurgiarako produktuak

Paella lehiaketa eta gazte olinpiadak, jai giroaz gozatzeko hasteko gonbidapena

Udaletxeko balkoitik jaurtitako txupinazoak jai giroa zabalduko du herrian; triki-poteoa izango dute gero



Santa Ageda ermitaren inguruan jai giroa izango da nagusi domekan, irailaren 6an.

> JAIK! Aitziber Basauri Udaletxeko balkoitik jaurtitako txupinazoak jai giroa zabalduko du datozen egunetan, Izurtzan.

Irailaren 4tik 13ra bitartean ospatuko dituzte Erdoitza Andra Mari jaiak, eta, horretarako, askotariko ekitaldiek osatutako

jai egitaraua prestatu du udalak herriko hainbat eragilegaz. Txupinazorako hitzordua irailaren 4rako jarri dute,

20:00etan. Triki-poteoa izango dute, gero. Gau giroa, berriz, gaztelekuan antolatutako kontzertuek ipiniko dute.

Leku propioa izan ohi dute gastronomia lehiaketek inguruko jaietan. Baita Izurtzan ere. Aurten, paella lehiaketa antolatu dute. Irailaren 5ean izango da hori, 12:00etan. Parte-hartzaileek 14:30era arte izango dute paella egiteko denbora. Bazkalteko elkartuko dira gero.

Bazkalostea, ostera, gaztelekua antolatutako gazte olinpiadekin alaituko dute. Karteladara ere deitu dute, 13:30erako.

Santa Ageda

Santa Ageda ermita izango da jaigune irailaren 6an, domekan. Jaizalerekin kalejira egingo dute 10:00etan, eta, 11:00etan, meza izango dute Santa Ageda baselizan. Mendigain dantza taldeak eskainiko du ikuskizuna gero.

Iratxe Ibarra, Oihana Bartra eta Erika Lagoma bertsolariek jardungo dute 13:00etan, bazkalteko ordua heldu bitartean. Izan ere, ermitaren inguruan herri bazkaria antolatu ohi dute izurtzarrek Santa Ageda egunez. Eriz magoaren saioa hasiko da 18:00etan, eta, ondoren, herriko gazteek botatako apustuari helduko diote bertaratutakoek.

Txupinazorako hitzordua irailaren 4rako jarri dute, 20:00etan. Triki-poteoa izango dute, gero

Lotxo plaza taldearen doinuak egingo du aurrera arratsaldeak.

Irailaren 8a, Erdoitza Andra Mari eguna, jaieguna dute Izurtzan. Erdoitzako baselizan meza hasiko da 11:00etan, eta Mendigain dantza taldearen saioa egingo da gero. Txikienentzako ekintzak antolatu dituzte arratsalderako: umeentzako jolasak, eta Pepa eta Kutxo pailazoaren saioa izango dira ikusgai.

Tortilla txapelketak pilotalekua beteko du, azken urteetan lez

XXIV. Mendi Bizikleta Martxa egingo dute irailaren 12an, zapatuan



Luhartz taldeak erromeria giroa ipiniko du jaietako bigarren asteburuan.

> JAIK!

Urtez urte erantzun ona jaso duten hainbat ekitaldi batuko ditu Erdoitzako Andra Mari jaietako bigarren asteburuak. Muxikako (Bizkaia) andreek antzetzutako *Errautsetatik erne* obra ikusteko aukera egingo da irailaren 11n. Zapatu eta domekarako, berriz, jaietan guztiz uztartutako hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

XXIV. Mendi Bizikleta Martxagaz hasiko dute zapatua. Goizerako jarri dute hitzordua.

Miren Amurizak eta Gorka Lazkanok bertsotan egingo dute, San Tomas egunerako antolatutako jaietan

Arratsaldean, ostera, igel txapelketa eta tortilla lehiaketa egingo dira. Badira zortzi urte tortilla txapelketa antolatzen de-

la, eta hainbat izaten dira parte hartzera hurreratzen direnak. Lanean hasteko ordua 19:00etan ipini dute; tortillen aurkezpena, aldiz, 20:30erako lotu dute. Herri afaria egiteko aprobetxatuko dute gero.

Gau giroa berotzeko, Luhartz taldearen doinuak izango dituzte. Ostean, DJak ere egingo dira gaztelekuan.

San Tomas eguna

San Tomas egunagaz agurtuko dituzte jaiak, izen bereko ermitaren bueltan. Jaizalegaz kalejira egingo dute 10:00etan, eta, 11:00etan, meza izango dute ermitan. Mendigain dantza taldeak eskainiko du gero saioa.



Miren Amuriza eta Gorka Lazkanok bertsolariek bertsotan egingo dute 12:30ean, eta, gero, Gorriti eta bere abereak egingo dira. Jubilatuen bazkaria antolatu dute 14:00etarako. Arratsaldean mus txapelketa egingo dute Argintxu elkartean.

Bodegas Launa
Arabar Errioxa

www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 946 824 108

IZURTZAKO HERRIKO TABERNA

URDAIAZPIKOA Tel.: 946 202 024
SALAMANCAKO TXORIZOA IZURTZA
SOLOMO IBERIKOA
GAZTA



GREMIOEN GIDA



DEKORAZIOA



GARBIKETA



LOREZAINZA

Jaio barnizatuak

- Markeen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarriak.
- Era guztietako zaharberitzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garain A - Berriz.
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421
Faxa: 946 824 895 - info@jniobarnizatuak.com

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulegoetako eta industrietako mantentze-lanak
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta abar

Goietza, 10 - 2 esk. - ELORRIO
Tel.: 946 820 991

Jardines
Patxi
Lokategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23. 1. ezk. PATXI
48200 DURANGO 696 463 085



ITURGINTZA

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com



Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net



**Profesional onenak
zure zerbitzura!**

Dairi Brown | Ciego Ávila (Kuba), 1986 |

“Barnean zerbait loratzen sentitzen dut dantza egiten dudanean”

Duela urtebetetik Durangon bizi da Brown dantzari kubatarra; hainbat ekimen eta elkarlan ditu esku artean



Dantza afro-kubatarra egiten du, batez ere, Brownnek.

> DANTZA Itsaso Esteban
Uztailean, Bizkaiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertu batean dantza egin zenuen Markinan. Zer moduzkoa izan zen kolaborazio hori?

Lerman Nieves Durangoko musika eskolako irakasle eta biolontxelistaren bitartez hasi nintzen Bizkaiko Orkestra Sinfonikoagaz elkarlanean. Zornotzan egon nintzen uda hasieran eskaini zuten lehenengo kontzertua entzuten, eta han egin zidaten proposamena.

Zer berezitasun dauka orkestra sinfonikoaren ikuskizun horrek? Oso berezi eta betegarria da niretzat, Latinoamerikako kanta ezagun eta maiteak jotzen dituztenak musikari euskaldunak direlako. Uztaileko Markinako emanaldian, orkestrak zuzenean jo zituen Latinoamerikako bost kanta oso esanguratsugaz dantzatu nuen, eta oso-oso gustura ibili nintzen. Uste dut publikoak ere asko gozatu zuela, bai musikagaz, bai dantzagaz. Ikusle batez dantzan ere egin nuen emanaldi hartan!

Yakambú musika taldeagaz ere abiatu duzu elkarlana?

Bai, sortzailea Lerman Nieves

den ekimen bat da talde horrena ere, eta emanaldietan nire dantzagaz parte hartuko dut ikasturte honetan. Oraindik ez daukagu emanaldirik zehaztuta, baina udatik bueltan proiektu horri heltzeko asmoa daukagu. Mambo dantzak presentzia berezia izango du saio horietan: Euskal Herriko publikoak bereziki gustuko du dantzakera hori.

Zuzeneko emanaldi horietaz gainera, dantza ikastaroak ere ematen dituzu.

Bai, Ermuan eta Abadiñon eskaini izan ditut tailerrak, eta ikasturte honetan Markinan eta Gernikan emateko asmoa daukat. Kuban ere ibili nintzen dantza eskolak ematen.

Dantza afro-kubatarra beti?

Bai, dantza afro-kubatarra dira. Batez ere, yoruba erlijioari

“*Nire kulturaren ezaugarri puruenak bestelakoekin uztartzea maite dut*”

eta Kubako dantza tradizionalei loturikoak. Baina afro jazz eta dantza afro garaikidea ere irakatsi izan ditut inoiz. Ume, gazte zein helduentzako aproposak dira dantza horiek guztiak. Nire kulturaren ezaugarri puruenak beste batzuekin uztartzea maite dut, sortzaile izateko aukera ematen duelako horrek.

Zer moduz hartu du jendeak eskaintza? Ikasle asko edukitzen duzu ikastaroetan?

Durangon oso zaila da jendea dantzaraztea [barrez]... Baina edozelan ere, hasi da jendea dantzarekiko jarrera apur bat zabalagoa izaten. Nahi nuke euskaldunek Kubako dantzak –salsa, sona edo yoruba– gehiago ezagutzera. Pertsonen psikologiari on egiten diote dantza horiek.

Zer zentzutan diozu dantza afro-kubatarra onak direla buru osasunerako?

Dantza horiek yoruba erlijioagaz lotura handia daukate, eta *orisha* espirituei eskainitako dantzen bitartez bizitzako egoerak eta sentimenduak erreprezentatzen ditugu. Uste dut barrua askatzen laguntzen dutela zentzu batean. Edozelan ere, edozein dantza mugimendu egin orduko, egingo duzunaren ezagutza sakona edukitzea oso inportantea da: dantzatuko duzuna ezagutzen ez baduzu, ez duzu ondo interpretatuko.

Durungaldean hainbat lekutan ikusten da Karibeko dantzak irakasten dituztela... Moda bat ere bada?

Bai, horrela da. Tabernetan zein dantza eskolatan eskaintzen dituzte ikastaro eta tailerrak, baina jatorri afrikarreko Kubako kultura ez da lantzen ezagutzen ditudan lekuetan. Kubako kultura sakonki ezagutzeko aukera hori eskaini gura nuke.

Zer helburu eta amets daukazu dantzari lotuta?

Hemen ezezagunak diren hainbat dantza irakatsi nahi nituzke Durangon. Jendeari dantza irakastetik bizi ahal izatea da nire ametsik handiena. Nahi nuke jende asko ohartarazi dantzaztea buru eta gorputz osasunerako ezin hobea dela, bizigarria dela. Arazoak ahazten laguntzen digu dantzatzeak... Nire kasuan, barnean zerbait loratzen sentitzen dut dantzatzean. Argi daukat denok daukagula dantzari izateko gaitasuna, bakoitzaren erabakia dela ahalmen hori garatzea ala ez garatzea.

Durungaldeko hainbat musikarigaz harremanetan


Durangoko musika eskolan sorturiko Yakambú taldeagaz ariko da Dairi Brown, irailetik aurrera

Urtebete baino ez darama Dairi Brown kubatarra Durangon bizitzen, eta bi aldiz erakutsi ahal izan du bere lana: Durangoko jaietako Kamankola kubatarraren kontzertuan, eta Asier Leatxe musikarigaz, Durangoko Azokan.

Hain zuzen, Kamankola musikari kubatarra iazko Durangoko jaietan jotzera etorri zenean sortutako elkarlana da Dairi Brownen eta Yakambú musika taldearen artekoa. Hain zuzen, Durangon Kamankolari laguntzen aritu zen banda zuzendu zuen Lerman Nieves venezolarrak proposa-

turikoa. Brownnek azaldu duenez, harreman horretatik sortutakoak dira aurten emanaldiak eskaintzeko izan dituen aukerak; Bizkaiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertu batean dantza egitea, kasurako.

Goi mailako kirolari izateko prestakuntza jaso zuen umetan, Kuban, baina dantzari izatea erabaki, eta Arte ikasketak egin zituen gero. Ochocuan ballet folklorikoan dantzari profesionala izan da, eta Kubara bueltatzen denerako badu erronka: euskal dantzak ikasi gura ditu, jaioterriko ikasle eta irakasleei irakasteko.



Umetan goi mailako kirolean jardundakoa da kubatarra.

Punteria doitu, eta urteko lehen puntuen bila doa Amorebieta

Estreinako partidua galdu ostean, Toledon jokatu du asteburuan



Intentsitate handiko partidua jokatu zuten Bizkaiko derbian. sdamorebieta.net

> FUTBOLA Joseba Derteano Amorebietak porrot batez hasi du 2015-16 denboraldia. Joan zen asteburuan, Leioak hiru puntuak eraman zituen Urri-txetik, partiduen hondarreen sartutako gol bati esker (0-1). Aukera gutxiko derbia jokatu zuten Bizkaiko talde biek, baina

izandako apurretan zehatzago ibili zen Leioa.

Talde biek entrenatzaile berria dute, eta etapa berri baten hasieran daude. Amorebietan, Carlos Docandok Jose Felix Gallastegi ordezkatu du aurten, eta Igor Gordobilek urte askoan Leioako gidari izan den David

Movilla. Partiduan zehar igarri zen talde biak oraindik badutela zertan hobetua. Lehen zatian, intentsitate handia erakutsi zuten, baina aukera gutxi izan zituzten. Bigarrenean, Amorebietak hainbat bider lortu zuen Leioaren presiotik irtetea, baina azken metroetan argitasuna

falta izan zitzaion. Hala ere, izan zituen aukera gutxi batzuk, baina ez zuen asmatu. Azkenean, punteria onena erakutsi zuen taldearentzat izan zen garaipena. Partidua husna amaituko zela zirudienean, Leioako Güemes jokalaririk jaurtiketa zehatz batez Sergio Herrera atezaina gaititu zuen. 89. minutuan heldu zen gola, eta ez zegoen erreakziorako astirik.

Asteburuan, Toledoko (Espainia) Talavera de la Reina taldearen zelaia bisitatuko du Amorebietak. Gaztela-Mantxako taldeak ere porrot batez ekin dio denboraldiari; Real Unión taldeari egindako bisitan 2-0 galdu zuen. Denboraldia hasi berria da, eta sailkapeneko postuak oraindik ez dira ezerean adierazle, baina asteburuan hiru puntuak ekartzea garrantzitsua litzateke, batez ere taldearen konfiantzari begira.

Kulturalak berdinketa

Maila bat beherago, Hirugarren Mailan, Durangoko Kulturalak ere joan zen asteburuan ekin zion denboraldiari. Deustoren zelaian bana berdindu ostean, maila onean hasi du denboraldia. Tabira zelaiko debuta zapatu honetan izango du, 18:00etan, Aurrera Ondarroaren aurka.

ADITUAREN TXOKOA



Kepa Arroitauregi

Pilota teknikaria

Distira gutxi

Uda garaian pilotak euskal herrietako txoko guztiak bisitatu ditu. Jaiak tarteko, pilotari handienak beren maila aurkezten saiatzen dira han eta hemen. Egia esan, ez da garairik onena izaten maila goreneko partidu asko ikusteko, pilotari onenak *pasatuta* baitaude, baina tradizioz pilotalekuek gainezka egiten dute.

Aurtengo uda ez da onenetakoa izaten ari *gure* izar nagusienentzat, eta, 31 urteren ostean, banakako titulua Bizkaira itzulita momentuz hor geratu dira lorpenak. Uztailen txapelkunak berak sustoa eman zigun Zornotzan, buruan pilotakada jasota. Mikel Urrutikoetxea, egun batzuk bajaran izan ostean, kantxaratu bai, baina egurra jaso eta jaso ari da. Eta zaratamoarra baino *izar* distiratsua goa den Pablo Berasaluze ere, asko jokatu bai, baina lorpenetatik urrun dabil. Gainera, beste behin, Miribillan *krak* egin du berriz-tarrak, eta ia hilabeterako baja izango da sorbaldako luxazio bat tarteko. San Antolin eta San Mateo txapelketek agur! Elezkano, Aretxabaleta, Ibai Zabala... Bigarren Mailako partiduetan ari dira. Halere, azken horrek bere aukera izango du Lekeitioko sanantolinetan. Zortetik onena opa diot.

Dena dela, ez dira denak gris eta ilunak. Afizionatu mailara jaitsita, lehiaketa handienetakoa den Antigua txapelketa aipatu behar, bertan Arrizabalaga eta Urizar markinarrak finalean baitira jada. Igandean jokatu dute biek partidu nagusia, eta orain arteko maila emanez gero, txapelkun izan litezke. Urizar atzelaria bikaintasunetik hurre dabil Donostia aldean. Zorionak eta animo biei!

Iñakiren Bideak ibilbidea osatuko dute asteburuan

> BIZIKLETA

Iñaki Lejarretaren omenez Euskal Herriari bira ematen dion Iñakiren Bideak bizikleta ibilbidea hirugarren aldia egingo du zapatu honetatik domekara. Lejarretaren senitar-teko eta lagunek zein mendiko bizikletazaleek 427 kilometroko ibilbidea osatuko dute hainbat etapatan banatuta.

Mendiko bizikleta ibilbidea Berrizen, Lejarretaren sorterrian, hasiko dute barikutik zapatuak goizaldean, 04:00etan. Guztira, bederatzi etapatan banatuta egongo da, eta errelebo-ka osatuko dute. Lehenengoan, Berrizko Elizondo plazatik Uribari-Ganboa presara arteko bi-

dea osatuko dute (45 kilometro). Hurrengo etapetan, Arabako (Durruma Kanpezu), Nafarroako (Izkue) eta Gipuzkoako (Hondarribia eta Zarautz) lurak zapalduko dituzte. Azken etapak Olatz (Mutriku, Gipuzkoa) eta Berriz lotuko ditu 37 kilometroko ibilbideagaz, eta bizikletariak 16:00 inguruan helduko direla aurreikusten dute.

Parte hartzeko ez dago izena eman beharrik, ez delako lasterketa bat, eta partaide bakoitzaren ardura izango da ibilbidea osatzeko beharrezko materiala eramatea. Etapa guztietako ibilbide zehatzak eta ordutegiak www.inakirenbideak.com webgunean aurkitu daitezke.

Petralanda gogoratuko dute padel txapelketan

> PADELA

Padelzaleak elkarteak gaur hasiko du San Fausto padel txapelketan izena emateko epea. Laugarren edizioa duen txapelketa oroimenezko bihurtuko da, ekainean auto istripuz hil zen Ales Petralanda klubeko kidea omentzeko. Landakoko igerilekuetan eman daiteke izena; baita inforpadelzaleak@gmail.com helbide elektronikoan ere.

Landakoko kiroldegian jokatu dute txapelketa, bariku arratsaldetan, zapatuetan –goiz eta arratsalde– eta domeketan –goiz eta arratsalde–. Parte hartu gura duten bikoteek irailaren 7ra arte edukiko dute izena emateko aukera.

Lau kategoriatan jokatu dute padel txapelketa: gizon-emakumeena, gizonena, emakumeena eta umeena. Nagusiek 15 euro ordaindu beharko dute pertsonako, eta kategoria bitan partu hartu nahi izanez gero, 20 eurokoa izango da izen-ematea. Umeen izen ematea 5 euro da.



Petralanda Padelzaleak elkartekoa zen.

GALLASTEGI

www.gallastegiharategiak.com 1955ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK



Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017



JATETXE GIDA

ÑAM!**LAPIKO**

Frantzisko Ibarra, 3 DURANGO

Tel.: 946 218 122

Etxeko pizzak. Eguneko menua, karta berria. Etxera eramateko zerbitzua.

www.lapikodurango.com**ÑAM!****PEDRO JUAN**

San Antonio, 1 BERRIZ

Tel.: 946 826 246

Eguneko menua. Karta. Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.

ÑAM!**PLATERUENA Kafe Antzokia**

Landako etorbidea, 4

Tel.: 946 030 300

Eguneko menua astelehenetik zapatara. Taldeentzako menu adostuak. Askariak.

ÑAM!**MENU BEREZIA**

Sarrerakoak (bi aukeran)

Entsalada

Patata frijituak

Zatitutako txuleta errea

Postrea

Ogia eta edaria

60€
bikoteko
(BEZa barne)**JULIANTXU**

Iturriza, 2 BERRIZ

Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea. 75 lagunentzako jangela.

ÑAM!**IBARRA SAGARDOTEGIA**

Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA

www.ibarra-sagardotegi.com

Tel.: 946 731 100

Egunero zabalik.

Gure upategian egindako sagardoa.

Aparkaleku pribatua eta jolastokia.



Ibarra Sagardotegiaren eskutik bi personarentzako menua zozkatuko dugu

Nork jaurtiko du Ferixa Nausikoetako txupinazioa?

Zozketaren irabazlea: **Alberto Diez** zorionak!ERANTZUNA: zozketa@anboto.org helbide elektronikora edo ANBOTO astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta**ZORTE ON!**

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 550€tik aurrera.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, komun 2 eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztatua.
- FRANTZISKO IBARRA: 4 logela, komun 2, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- MURUETATORRE: 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta trastelekua.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 120.000€
- ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelekuarekin. 128.000€tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoa kanpora begira dago. Berriztatuko. Inguru onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

ATXONDO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira dago. 3 balkoi. Garaje itxia.
- 3 logela, komun 2, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Etxe osoa kanpora begira dago. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta pilotalekua.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO

- Bi bizitzako etxea eraikitzeko. 1.100 m2-ko lursaila salgai. Inguru egokia.

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

ABADIÑO

- Bi familiako etxea eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Informazio pertsonalizatua.

EUBA

- 3.000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. Lurzati 2, bakoitzean bi familiako etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ABADIÑO. Gaztelua: Baserría. Sarrera arku ederra du. 20.000 m2-ko lursaila baserri ondoan.
- BERRIZ: 1.200 m2-ko lursailan kokatutako txaleta, Abeletxe kalean. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.
- DURANGO: Familiabakarreko txaleta salgai lorategiarekin. Igerileku klimatizatua. Ikuspegi ederra. Inguru pribilegiatua.
- ATXONDO: Martza auzoan. 15.000 m2-ko lursaila. Teilatu berria. Inguru ikusgarria.

ETXEBIZITZAK SALGAI

F.J. ZUMARRAGA
225.000€



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoi 2. Berogailua eta igogailua.

PINONDO
195.000€



- 67 m2. Ikuspegi ederra. Etxe osoa kanpora begira dago. Balkoi itxia. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Berogailua. Igogailua.

ERRETENTXU
130.000€



- 73,43 m2. 2 logela, egongela, sukalde jantzia, komuna, bainugela eta esekitokia. Prezio negoziagarria.

F.J. ZUMARRAGA
125.000€ Prezio negoziagarria



- Etxebizitza handia. Balkoia. Igogailua. 4 logela, egongela handia, komuna eta sukalde handia.

MARTXOAREN 8KO KALEA
98.500€



- Erdi berria. BOE. Logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. 40 m2-ko terraza. Garajea eta trastelekua.

SAN FAUSTO
88.000€€



- Bizitzaren sartzeko moduan. 3 logela, egongela, sukalde jantzia, despentsa eta komuna. Berogailua.

www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/4 logela eta komun 2.
- ARAMOTZ: Halla, 3/4 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ARTEKALEA: 1/4 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3/4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- ASTOLABIDE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta trastelekua.
- BARRENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia.
- ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta trastelekua.
- ERRENTENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garajea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Garajea aukeran eta trastelekua.
- EZKURDI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta komuna.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
- GALTZARETA: 5 logela, sukaldea, egongela, komun 2 eta bainugela 2. Portxea. Garajea eta trastelekua.
- GOIENKALEA: Logela, sukalde-jangela eta komuna. Terraza 2. Trastelekua.
- JOSE ANTONIO AGIRRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- JUAN ITZIARKO: Logela 2, sukaldea, egongela, komuna eta despentsa.
- JUAN ITZIARKO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Lursailarekin.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- KOMENTUKALEA: 2/4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- MONTEVIDEO: 2/3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza.
- MUGARRA: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Balkoia. Trastelekua.
- PLATERUEN PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SAN FRANTZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Terraza.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOIA: 4 logela, sukalde-jangela, egongela eta komun 2. Balkoia. Trastelekua.
- TABIRA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Despentsa. Balkoia.
- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ZEHARKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.

ABADIÑO

- ANDRA MARIA: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Despentsa. Balkoia.

Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.

ETXEBIZITZAK SALGAI

SAN IGNAZIO



- 3 logela, komun 2, egongela terrazarekin eta sukaldea. Esekitekia. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua. **246.000€.**

MIKELDI



- Erdi berria. 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela. Balkoia. Trastelekua eta garajea. **265.000€.**

F.J. ZUMARRAGA



- 85 m2. 3 logela, komuna, egongela terrazarekin eta sukalde handia. Igogailua. Eguzkitsua. Garaje itxia 2 kotxerentzako (aukeran). **120.000€.**

LANDAKO



- 3 logela, komun 2 eta egongela. Terraza handia. Ganbara eta garajea. Etxe osoa kanpora begira dago. Eguzkitsua. **236.000€.**

MATIENA



- 4 logela, komun 2, egongela terrazarekin eta sukalde terrazarekin. Ganbara eta garajea. **209.000€.**

ABADIÑO



- Erdi berria. Logela 2, egongela eta sukaldea esekitokiarekin. Terraza Hegoaldera begira dago. Trastelekua eta garajea. **195.000€.**

LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com


ANBOTO INMOBILIARIA ETXELAN
 NIZETO URKIZU, 12 BEHEA - ELORRIO
 946 550 358 - info@inmobiliariaetxelan.com
 www.inmobiliariaetxelan.com

SALGAI**ELORRIO**

REF.499 . 70 m2-ko pisua, 2 logela, bainugela 1, sukalde amerikarra. 155.000€.

TABERNA BI SALGAI. KONTSULTATU.

REF. 579. 200 m2-ko etxea eta 1.700 m2 inguruko lursaila. 390.600€.

REF.582. 76 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, egongela eta sukalde. 93.300€.

REF. 472. 65 m2-ko PISU BERRIA, logela 2, bainugela 2, sukalde amerikarra. 132.000€.

REF. 547. 50 m2-ko apartamentua, logela 1 eta bainugela. 154.500€.

REF.474. Pisua. 95 m2. 3 logela. Bainugela 2. Garajea

Lokalak, dimentsioak: 250 m2, 170 m2, 140 m2, 121 m2, 101 m2, 62,5 m2 eta 105 m2.

REF. 473. 65 m2-ko PISU BERRIA, 2 logela, bainugela 2, sukalde amerikarra. 161.000€.

REF. 407. 65 m2, 2 logela, bainugela 1, sukalde eta egongela. Garaje itxia barne. 148.600€.

REF.550. 95 m2-ko pisua, 3 logela, 2 bainugela, sukalde eta egongela. 185.300€.

REF. 565.- 75 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, egongela eta sukalde. 125.000€.

REF. 568.- 115 m2-ko pisua, 4 logela, 2 bainugela. 40 m2-ko trastelekua 155.000€.

Lursailak: Unifamiliarra eraikitzeko eta bifamiliarra eraikitzeko. 230.000€ / 330.000€.

BI LOGELAKO ETXEBIZITZA. 60.000€.

70 m2-ko pisua, 2 logela, bainugela 1, egongela eta sukalde. 40 m2-ko trastelekua. 84.000€.

ATXONDO

REF.495. Pisua. 95 m2. 3 logela, 2 bainugela, sukalde, egongela eta terraza. Garaje itxia (prezioan ez dago barne) 200.000€.

REF.469. Adosatua. 200 m2. 5 logela, 4 bainugela, egongela-sukalde, terraza-lorategi. 2 garaje. Kontsultatu.

Ref.428. Baserria. 383 m2, 3 logela, bainugela, egongela-sukalde. Lursaila. 385.000€.

Ref.427. Baserria. 900 m2, 9 logela, 2 bainugela, egongela, sukalde. Lursaila. Kontsultatu.

Ref.333. Pisua. 75 m2, 3 logela, bainugela, egongela, sukalde. 180.000€.

ABADIÑO

Txaleta, 4 gela, 2 bainugela, sukalde, egongela. Berri-berri dago. 570.000€.

Ref.372. 83 m2-ko pisua, 3 gela, 2 bainugela, egongela eta sukalde. 246.000€.

Ref.325. Pisua, 90 m2, 3 gela, bainugela 2, sukalde eta egongela. 105.000€.

BERRIZ

Ref. 393. Pisua, 80 m2, logela 2, bainugela, egongela, sukalde, balkoia. 162.000€.

60 m2-ko pisua, 2 logela, bainugela, egongela, sukalde. 126.000€.

Ref. 401. Pisu ia berria, 65 m2, 2 logela, bainugela 1, sukalde eta egongela. 204.000€.

Lursailak: 4 lursail salgai, eraikitzeko aukerarekin.

REF. 540.- TXALET BERRIA 1.200 m2-KO LURSAILEAN ERAIKIA. 600.000.

Ref.373. 68 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, egongela, sukalde. Aukera paregabea.

ZALDIBAR

Ref. 378. 90 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, sukalde eta egongela. 158.000€.

Ref. 391. Pisua, 70 m2, 3 logela, bainugela 1, sukalde, egongela. 125.000€.

Ref. 392. Pisua, 75 m2, 3 logela, bainugela 1, sukalde, egongela. 150.000€.

REF. 570. Pisua, 3 logela, bainugela 1, sukalde, egongela eta garajea. 159.000€.

Sartu gure webgunean
www.inmobiliariaetxelan.com

anboto.iragarki**laburrak**.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragarki-laburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak**ETXEBIZITZAK****SALDU**

Berriz. Etxe ederra herri barruan, kiroldegiaren eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da, eta bista zoragarriak ditu! Ia amaituta dago. Sukalde, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainu, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Aukera oso ona! Tel.: 651-34 80 08.

Lekeitio. Lekeition Alde Zaharrean eta itsasoari begira 3 logelako duplex zoragarria salgai. Tel.: 650-18 33 05.

Mallabia. Aukerakoa, nekazaritza-turismorako, toki eguzkitsua eta ederra, 20.000 m2 lursail. Prezio egokia, ikusi nahi baduzu, deitu 655-70 26 47 telefonora (19:00-21:00). Nahi izanez gero, aukera egon badago lursail gehiago eskuratzeko.

EROSI

Durungaldea. Durangon edo lurretan hiru logelako pisu baten bila nabil. Bitartekaririk gabe. Tel.: 648-78 53 63.

PISUA KONPARTITU**PISUKIDE BILA**

Durango. Pisukide bila nabil, durengoko Alde Zaharrean. Tel.: 634-82 90 51.

LOKALAK**SALDU**

Lekeitio. Lekeition 65 m2 lokala salgai. Alde Zaharrean. Tel.: 650-18 33 05.

GARAJE / TRASTEROAK**ERRENTAN EMAN**

Durango. Durangoko Ezkurdin garaje partzela irekia alokatzen da. Tel.: 688-84 05 60.

Teknologia**GAINERAKOAK****EMAN**

Bidali zure ordenagailua. Zure ordenagailua hondatuta badago, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, jaso, konpondu, eta Federación Niños del Mundo elkartearen bitartez bidaliko dugu Boliviako eta Peruko

ospitaleetara eta eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

Lana - negozioiak**LAN ESKARIAK****PERTSONAK ZAINDU**

Durango. Umeak zaintzeko, eskola partikularrak emateko eta garbiketa lanetan aritzeko prest nago. Tel.: 679-23 71 29.

Durango. 2015-2016 ikasturtean haurrak eskolara eramateko pertsona baten bila zabilta? Haurrekin esperientzia duen 25 urteko neska Durangon lan hori egiteko prest. Tel.: 628-61 40 34.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut, eta garbiketan ere ibiltzen naiz; orduka, asteburuetan, gauzez goizez zein arratsaldez. Tel.: 648-78 53 63.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Tel.: 631-36 54 87.

Durungaldea. Ospitalean dauden pertsonak zaintzen ditut, eta umeak ere zaintzen ditut. Etxeak eta tabernak garbitzen ditut. Barneko zein eguneko langile gisa lan egiteko gertu. Tel.: 632-54-53-03.

Durungaldea. Emakumea lan bila, pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketan. Barruko zein eguneko langile gisa, orduka zein asteburuetan. Paperekin. Erreferentzia onekin. Tel.: 632-32 60 45.

Durungaldea. Neska arduratsua lan bila dabil barruko zein eguneko langile gisa, pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Asteburuetan ere bai. Esperientziaduna. Tel.: 627-64 41 57.

Durungaldea. Neska arduratsua lan bila dabil, lanaldi erdian edo osoan, pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketan ere ibiltzen naiz. Erreferentzietan. Tel.: 631-28 71 29.

Durungaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbitu eta lisatu ere egiten dut. Eguneko langilea.

Gauetan edo goizetan. Tel.: 632-46 01 09.

Durungaldea. Eguneko langile gisa lan egiteko prest dagoen neska bat naiz; pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Garbitasunean ere ibiltzen naiz. Gauzez ere bai. Tel.: 618-02 68 34.

IRAKASKUNTZA

Abadiño. Neska arduratsua eta euskalduna lan bila dabil, umeak zaintzen edota eskola partikularrak ematen. Esperientzia daukat. Haur Hezkuntzako titulua dut. Tel.: 688-61 83 52.

GAINERAKOAK

Durungaldea. Kontabilitatea, fiskalitatea... eramateko prest. Neska lizentziatua eta esperientziaduna. Tel.: 635-71 59 28.

LAN ESKAINTZAK**PERTSONAK ZAINDU**

Durungaldea. Etxeko laguntzaile auxiliar eta geriatra bikotea

etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest dago. Esperientzia handia. Prezio merkea. Aseguratuta gaude. Tel.: 690-28 60 71.

GAINERAKOAK

Durango. Durangoko denda baterako saltzailea behar da. Euskara. Curriculum bidali: Tronperri kalea, 8, 2A, Durango.

Ibilgailuak**BESTE IBILGAILUAK****EROSI**

Traktore baten bila nabil. Traktore bila nabil, goldeagaz eta rotabatorragaz. 30-70 zaldi potentzia. Tel.: 622-47 33 65.

Familia - etxea**GAINERAKOAK****EMAN**

Arratoi txakurrak oparitzen ditut. Arratoi txakurrak oparitzen ditut. Tel.: 692-36 69 55.

Bizkaiko Urbintxa Eskola
 Zabaldite 26, behea. 48006 BILBO. t. 94 432 04 45
www.urbintxaeskola.eus
urbintxa@urbintxaeskola.eus

2015 2016
Astiaaldiko Begirale
 ikastaroa - Durangon

PROGRAMA
 -Taide dinamikak.
 -Psikologia ebolutiboa.
 -Soziologia.
 -Begirale tipologia.
 -Sexualitatea.
 -Zehar lerroak: Hezkuntza, kulturartekotasuna,...
 -Udalekuak eta kanpamenduak.
 -Euskal Herria hezten.
 -Lehen sorospenak,...

IKASTAROEEN FITXA
-BALDINTZAK: 2015eko abendua baino lehen 18 urte beteta izatea
-IRAUPENA: 200 ordu teoriko eta 120 ordu praktikoko batean.
-DATAK: Asteburuetan, hilabetean bitan, ikasturte batean.
-TITULAZIOA: Eusko Jaurlaritzak luzatutako Titulazio Ofiziala.
-PREZIOA: DOAN Amankomunazgoko Euskara Zerbitzuan parte-hartzen duten herrietako

Eman izena!
 Irailaren 1etik 18ra
 Durangoko Merinaidearen Amankomunazgoan
 Laubideta 6, Durango
 Tel.: 94 623 25 22
euskera.mdurango@bizkaia.org

BFA DFB
 EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
 urtxintxa eskola

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Abuztuaren 28an, 22:30ean, Elorrioko San Agustin auzoko jaietan

Itziarren Semeak

San Agustin auzoko jaietako egitaraua itxiko du Itziarren Semeak taldearen kontzertuak. 2014. urtean kaleraturiko 'Revolta' diskoa, taldearen laugarrena, aurkeztuko du taldeak, gaur, Elorrioko San Agustinen. Dantzarako eta jairako ska eta punk doinuak ez ezik, Europako ekialdeko eta Mediterraneoko doinuak ere izango dira entzungai.



Jaiak

:: ELORRIO (San Agustin)

ABUZTUAREN 28an

12:00etan, meza eta argazki erakusketa.

13:00etan, Betsaide dantza taldea eta igel txapelketa.

14:30ean, auzo bazkaria.

17:30ean, haurrentzako jolasak eta esku lanak, zezentxoak eta txokolata.

19:00etan, Zeren Zain? pailazo taldea.

22:30ean, Itziarren Semeak taldearen kontzertua.

:: MALLABIA

ABUZTUAREN 29an

20:00etan, Txopoa jasoko dute.

21:00etan, auzokoentzako merienda-afaria.

ABUZTUAREN 30ean

11:30ean, meza nagusia.

12:30ean, Berrizko San Lorentzo dantza taldearen emanaldia.

13:00etan, desafioa: Aterpe Eraikuntza enpresaren zaldia, Oiartzun-Astigarragako Emarri emakume taldearen kontra.

14:30ean, gonbidatuentzako bazkaria.

17:30ean, bola joko txapelketa.

18:00etan, umeen jolasak, puzgarri eta txokolatada.

19:00etan, patata tortilla txapelketa.

ABUZTUAREN 31n

12:00etan, auzoko hildakoen aldeko meza eta Mallabiko Gazte Alai dantza taldearen emanaldia.

13:00etan, bola joko txapelketa.

17:30ean, asto probak eta, ondoren, Lumagorri oilasko erreka eskainiko dituzte.

20:05ean, karretilen zozketa.

:: ZORNOTZA (Autzagane)

ABUZTUAREN 29an

20:30ean, txupinazoa.

21:00etan, bertso, koplak eta soinu afaria Andoni Egaña, Igor Elortza, Xabier Amuriza eta Zornotzako trikitilariekin.

ABUZTUAREN 30ean

09:00etan, ZES-ASaren aldeko ibilaldia. Autzagane-Bizkargi joan-etorria.

12:00etan, igel txapelketa. Ordu berean, Lorelka txalapartari taldearen, alboka eta adar jotzaileen, eta Zornotzako Udazken txistulari taldearen auzojira alaiak. Ondoren, parrilada Autzagane jatetxean.

17:00etan, binakako briska txapelketa bizkorra.

18:00etan, umeen jolasak eta herri kirolak.

Amaieran, ume guztientzat txokolatada.



Musika

:: DURANGO

IRAILAREN 1etik aurrera

4. Greatest Hits Gauean parte hartzeko izen-ematea. Irailaren 1etik aurrera, 'www.greatesthitsgaua.dkproduktzioak.eus' webgunean.



Erakusketa

:: ELORRIO

IRAILAREN 4tik 21era

'Zuri-beltzean klik: Durangaldeko iragana argazkietan', Iturri kultur etxean.



Errogatiba

:: ABADIÑO

ABUZTUAREN 29an

11:30etik aurrera, Errogatiba Eguneko ospakizunak, Urkiolan.

:: MAÑARIA

ABUZTUAREN 28an

12:00etan, meza nagusia, Urkiolan.



Ikastaroa

:: DURANGO

IRAILAREN 1etik 15era

Begirale ikastaroan izen-ematea. Amankomunazgoko Euskara Zerbitzuan (Laubide kaleko 6. zenbakian) eman daiteke izena. Ikastaroa urritik maiatzera egingo dute.

:: ELORRIO

IRAILAREN 21ean

Elorrioko Emakumeen Eskolan izena emateko aukera. Irailaren 21etik azaroaren 30era arte, **'Enplegurako motibazio eta lan bilaketa'** tailerra egingo dute. Urriaren 17an, goizez eta arratsalde, **'Autodefensa feminista'** tailerra. Izen-ematea, udaletxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan edo udalaren webgunearan bitartez egin daiteke.



Antzerkia

:: ELORRIO

IRAILAREN 12an

21:00etan, 'Lo tuyo y lo mio', Arriolan.



Omenaldia

:: BERRIZ

IRAILAREN 11n

Frankismoko biktimei gorazarrea. 18:00etan, dantzariak, musika eta lore eskaintza, Felipe Urriaga enparantzan. Jarraian, 'Musikariak eta musikazaleak lehen eta orain: izan zirenak gogoratu eta gaur egunekoak gozatu' ekitaldia, eta Berriz 1936 Gogoratzen kultur elkartearen webgune berriaren aurkezpena, Kultur Etxean.



:: DURANGO | ZUGAZA

Atrapa la bandera

- **barikua 28:** 19:30
- **zapateria 29:** 17:00
- **domeka 30:** 16:30/18:45
- **astelehena 31:** 18:30

Mi casa en Paris

- **barikua 28:** 22:00
- **zapateria 29:** 22:30
- **domeka 30:** 21:00
- **astelehena 31:** 21:00
- **martitzena 1:** 20:00

Vacaciones

- **zapateria 29:** 19:30

2. ARETOA

Vacaciones

- **barikua 28:** 19:30
- **zapateria 29:** 17:00
- **domeka 30:** 16:30/18:45
- **astelehena 31:** 18:30

Atrapa la bandera

- **barikua 28:** 22:00
- **zapateria 29:** 19:30/22:30
- **domeka 30:** 21:00
- **astelehena 31:** 21:00
- **martitzena 1:** 20:00

Irailaren 4tik 21era, Elorrioko Iturri kultur etxean

'Zuri-beltzean klik' erakusketa

'Zuri-beltzean klik' argazki zaharren erakusketa ibiltaria Elorrioko ikusteko aukera izango da, irailaren lehenengo asteetan. Gerediaga Elkarteak osaturiko 300dik gora argazki zaharren bilduma da, eta Iturri kultur etxean ipiniko dute ikusgai. Maiatzean Ermuan erakutsi zuten bilduma lehenengoz, eta Mallabian, Zaldibarren, Urkiolan, Otxandion eta Berrizen ere ipini dituzte ikusgai. Elorriotik Abadiñora eta Durangora eramango dute erakusketa.



> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
 eguazteneko 14:00ak arteko epea



> **Zorixonak printzesa!** Uztailaren 22an 7 urte bete dozuz. Muxote potolo bat etxekuen partez.



> **Zorixonak Natali!** Abuztuaren 30ean urte 2 beteko dozuz. Mosu pillue lastzana!



> **Etxeko gizontxuek 9 urte** bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partez.



> **Zorioxooonaak politta!** Patxi, Alfonsi, Jabi eta Danin partez, mosu potolo bat!



> **Iban eta Uxue Montecelok** abuztuaren 11n urteak bete dituzte. Zorionak eta mosu handi-handi bat familia guztiaren partez.



> **Zorionak aitatzu!** Gure super heroia zara! Muxu handi bat.



> **Unaxek** uztailaren 29an 9 urte bete zituen. Zorionak txapeldun, eta mosu potolo bat etxekoen partez.



> **Abuztuaren 16an Albertoren** urteguna izan zen. Zorionak, Alberto!



> **Gurasoek esan diote Enekor**i pastela euren kontu izango dela, baina merengea ere eurek jango dutela! Zorionak!



> **Abuztuaren 3an Dairenek** 10 urte bete ditu. Zorionak etxeko guztien partez!



> **Zorionak Oihan!** Uztailaren 30ean urtetxo bat bete dozu. Muxu handi bat Haizean partez.



> **Txarok** abuztuaren 26an urteak bete ditu. Zorionak eta besarkadak zure lagun partez!

> BOTIKAK

BARIKUA, 28
09:00-09:00

Etxebarria
Montevideo etorb. 2 - Durango

Guarrochena, Lide
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ZAPATUA, 29
09:00-09:00

Irigoiñ
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

Guarrochena, Lide
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-13:30

Campillo
Montevideo etorb. 24 - Durango

Bazan Diaz
Uribarri 5 - Durango

Larrañaga-Balentiaga
Berrio-Otxoa 6 - Elorrio

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

DOMEKA, 30
09:00-09:00

Navarro
Artekalear 6 - Durango

Guarrochena, Lide
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ASTELEHENA, 1
09:00-09:00

Bazan Diaz
Uribarri 5 - Durango

Goiria, Mari Carmen
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

MARTITZENA, 2
09:00-09:00

De Diego
Intxaurren 22 - Durango

Goiria, Mari Carmen
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

EGUAZTENA, 3
09:00-09:00

Campillo
Montevideo etorb. 24 - Durango

Goiria, Mari Carmen
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

EGUENA, 4
09:00-09:00

Gaztelumendi
J.A. Abasolo 2 - Durango

Goiria, Mari Carmen
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza



> **Zorionak Aritz!** Besarkada eta muxu handi bat etxeko guztien partez!



> **Hemen daude Larranoko** makila txapelketako irabazleak. Zorionak aititite **Juan Ramón** eta **Ander!**



> **Boiseko Euskal Jaira** 12 pertsonako kuadrilla juen ginen, eta munduen ziherr bizi dien euskaldunekin 40 pertsonako kuadrilla itzela osatu gendun. Eskerrik asko!



> **Malen Nazabalek** abuztuaren 10ean 9 urte egin zituen. Zorionak Igorren eta etxeko guztien partez!



> **Irati Ogizak** 9 urte egin zituen abuztuaren 11n! Zorionak Aner, Izar eta etxeko guztien partez!

Maide
okindegia-gozategia

Jose Antonio Agirre, 4
946 200 869
Avda. Montevideo, 1
946 204 383

> Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

UDA KO ARGAZKI LEHIAKETA

Informazio gehiago www.anboto.org webgunean

anboto
komunikabideak

Bulegorako zigituak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

“Ibilaldi zein korrikalditxoak egingo ditut gorputzak eutsi arte”

Collaradako kilometro bertikal bikoitza egin zuen uztailean, eta Camille Extrem hamaika bider egin du

> AKUILUA Aitziber Basauri Zegama-Aizkorri 53 urte zituela egin zuen lehenengoz Irene Sarrionandiak. Oromiñoko Zugazagoitia baserrikoa da, Deban (Gipuzkoa) bizi den arren azken 40 urteetan. Camille Extrem du lasterketa gustukoena.

Harrituta begiratuko zaituzte askok mendian gora...

Baten batzuek bai! Azpeitian, behin, maratoi erdia bukatu ostean, emakume batek goitik behera begiratu ninduen, eta ondo nengoen galdetu zidan, ea hezurak... Hezurak bere tokian nituela esan nion. Hark zuen harridura aurpegia!

Noiztik mendi lasterketetan?

Zegama-Aizkorri izan zen egin nuen lehenengoa, 2001n. Aurretik beste lasterketa batzuetan ibilia nintzen, baina asfaltoan.

Zegama-Aizkorri egiteko beldur izan zinen...

Bai. Senarrak eta nebak animatu ninduten. Gero, hamaika urtez egin dut; 6 ordu eta 18 minutu dut denborarik onena. Denbora horren bueltan ibili naiz beti. Hamargarrenez egin, eta uztea zen asmoa, baina oso eguraldi eskasa egin zuen, eta 7 ordu eta erdian amaitu nuen. Orduan, hamaikagarren aldiz egitea erabaki nuen. Azkena. Presioa handia zen.

Zenbat urte korrika hasi zinela?

Alaba gazteena jaio orduko hasi nintzen, eta 33 urte ditu. Suabe-suabe hasi nintzen lagunekin lau bat kilometro eginez, hurrengoan bost... Beste intenziarik gabe, zerbait egitearren.

Gustua hartu zenion.

Senarra eta beste bi-hiru lagun astean bizpahiru aldiz irteten ginen korrika. Behobia-Donostia etorri zen gero; baita Deban antolatzen zen beste lasterketa bat ere. Asmoa parte hartzea baino ez zen. Gizonen mundua izan da beti hau, gehiago direla onartu behar da. Euren artean pixka bat eutsi diot.

Andrea izatea eta adina gaintu beharreko trabak izan dira?

Ez. Gazterik hasiz gero ere, seme-alabak izanez gero zaila izaten da. Alabagaz ikusten dut. Ez dauka nik beste denbora. Alaba nagusia apur bat hazita nuela, eta senarragaz txandakatu, korrika egiteko aukera izan dut. Lana ere txarra ez: irakaslea izan naiz. Ez dut trabarik izan, oso ondo moldatu naiz.

Camille Extremen ere ibili zara.

Ahozabalik uzten dituzu asko. Sortu zenetik parte hartu dut, bai; hamaika urte dira dagoneko. Collaradako kilometro bertikal bikoitza ere egin nuen uztailean, eta gustura amaitu nuen. Orduan ere, begiratu eta zimurrak ikusita, goraino igo ote nintzen galdetu zidaten. Gustura ibili naiz, eta ondo bago, jarraitzeko asmoa dut.

Gurago mendia asfaltoa baino?

Gorputzarentzat monotonoa da asfaltoa, pausoa beti da bera. Nekosoa ere bada. Mendia politagoa da; ez zara aspertuko. Harriak, zuloak, lur gogor zein biguna, lokatza, labankadak... Pirinioetan bost ordu egin zentzuz, baina egin bost ordu asfaltoan! Urteak aurrera joan-

da ere, mendia esker onekoagoa da. Gainera, mendizalea naiz.

Mendi lasterketak mendia barik atletismoa direla diote batzuek.

Bai, koinatua dut horren adibide. Urtetan gorrotatu izan ditu mendian korrika ibilitakoak. Mendira disfrutatzen joan

behar dela esan du beti. Baina orain bera hasi da arineketan, eta oso gustura dabil! Txikiziorik egin ezean, dena zegoen moduan utzita uste dut biak egin daitezkeela. Nik ere jarraitzen dut mendira joaten oinez.

Zein proba duzu gustukoena?

Camille Extrem. Collaradako ere gustatzen zait. Zegama-Aizkorri polita da, baina gogorra ere bai, eta estresa sortzen zidan... Anboto bertikala ere egin dut hiru bat bider, baina leherztekoak diren horrelako lasterketak gazteentzat dira.

Noizko nahiko da?

Denak helmugara heldu ostean, ez dut gura ordu erdira ailegatu. Orduan esango dut nahiko da! Baina ibilaldi eta korrikalditxoak egiten jarraituko dut gorputzak eutsi artean, 70 urte, 80...



Christian Pau.

LAUHORTZA

ARITZ MALDONADO

Kazetaria



Txangoak

Jantzi oinetako erosoak eta galterdi onak. Aldatzeko mudak, eta beste praka pare bat, momentu batean jantzita edukitzeko. Sartu beste sudadera bat ere, badaezpada. Ostera kantinplora ur freskoz bete (inoiz ez dakizu noiz aurkituko duzun hurrengo iturria), motxila hartu eta aurrera.

Albokoarekin solasteari ekin diozu, bidea arintze aldera, eta halako batean, grabatzen ari diren kazetaria eta kameralaria agurtu dituzu. “Pertsonak gara, zuek bezala”.

Mazedoniatik iritsi zaizkigu irudi hauek, kazetariak kamera aurrean jende ilarak atzean dituztela. 6.000 lagun iritsi dira Serbiara asteburuan, oinez edota trenean, bakoitzak ahal izan duen bezala. Hungaria dute hurrengo geltokia, horiek. Asteburu honetan ere, 4.700 etorkin heldu dira Italiako kostaldera (urtariletik, 100.000 lagun baino gehiagok egin dute bide bera).

Aktualitatea da, baina artxiboko irudiak izan zitezkeen berdin.

Ohituta gaude Mediterraneoetik txalupetan iristen diren etorkinen irudietara, aldiz, Europa barruko mugetako egoera dramatikoak arrotzagoak zaizkigu. Umea besotan duen aitari negar gas eta granadekin ongi etorria, ze zibilizazio mota gara? Esku artean lehertu zaie krisia (beste behin) Europako liderrei, kontinentea txarrantza hesiz ingurutzea saiakera antzua dela erakutsiz (beste behin).

Badago abesti bat, lehenbizikoan harrapatu ninduen, eta horrelakoak gertatzen diren aldiro datorkidana burura. *Hay mas estrechos haciendose abismales. Somos tan pequeños como los granos de arena del desierto, del desierto que fue mar.*

ALBERDI
HARATEGIA



Askatasun etorbidea, 1 DURANGO · Tel.: 946 817 658
Sabino Arana, 1 ZORNOTZA

- Zornotzara ere heldu gara -

ETXEKO TXORIZO ONENAREN SARIA

2014-2015
VILLA DE BILBAO

ODOLOSTE ONENARI SARIA

2013 BIZKAIKO ODOLOSTEEN MUNDUKO TXAPELKETAKO IRABAZLEA

2014 ELORRIKO BUZKANTZA JAIKO ODOLOSTE ONENA